



ARGIA

GAZTEAK, HILZORIAN
ZEGOEN ERREMONTEA
BIZIBERRITZEN

IGNACIO ESCOLAR:
"BOTEREDUNAK
KONTROLATZEA DA
KAZETARITZAREN
ZEREGIN NAGUSIA"

PAULA EZKERRA,
PROSTITUTAS INDIGNADAS:
"IKUSMOLDE
ABOLIZIONISTAK ELIKATU
EGITEN DU ESTIGMA"

**LURDES ZABALTZARI
ELKARRIZKETA**

**AITORTU GABEKO
BIKTIMEN SAMINA**



*Kontatzen
ez dena
ez da*

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil: Kubaren geroa, bere nekazaritzaren esku

IRITZIAK

- 17 June Fernández
- 18 Iván Giménez
- 19 Jose Ignazio Ansorena Itxaro Borda



Ignacio Escolar eldiario.es-eko zuzendariak Espainiako prentsaren panorama ilunari buruzko zenbait gako eman digu. (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: PAULA EZKERRA
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Lurdes Zabaltza: "Mikelekin zer gertatu zen badakigu, aitortpena falta da" / Miel A. Elustondo
- 20 | Administrazioa euskalduntzen. Barraskiloaren abiadura ulertzeko aztarnak / Onintza Irureta Azkune
- 25 | Ikusmen urritasuna dutenen traba nagusia: gizarteratzeko oztopoak / Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
- 28 | Teresa Cacere, Napoliko errealitate sozial gordinari aurre egiten dion ekintzailea / Xuban Zubiria Elexpe
- 30 | Argindarra, merkantzia huts? Pobrezia energetikoaren inguruko alarmak piztuta / Marijo Deogracias Horrillo
- 32 | Josetxo Ezkurra eta Endika Barrenetxea: "Erremontetik ezin daiteke bizi" / Jon Ander de la Hoz
- 34 | Ignacio Escolar: "Ez ditut errespetatzen gezurretan aritzen diren hedabideak" / Unai Brea
- 44 | Elena Urko, postpornoaz eta errepresentazioaz / Danele Sarriugarte Mochales
- 47 | Arte iruzkina: Elena Aitzkoa / Xabier Gantzarain

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagañña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibx Eizagirre.
Erredakzioa: Ainhoa Ortega, Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iosu Alberdi, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iratiz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Lioarte, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.

A photograph of a woman in a red dress and a colorful patterned headscarf, smiling and carrying a large white sack on her shoulder. She is standing in a landfill, with other people and piles of trash visible in the background. The scene is brightly lit, suggesting daylight.

PANORAMA

Zaborrak bizi gaitu

Gainpopulazioa arazo ugari sortzen ari da munduko txoko askotan. Horietako bat da India (1.240 milioi biztanle). Pertsona kopuru erradoi bati, muturreko pobrezia eta hondakinen kudeaketa negargarria gehituz gero, Bhalswa txabolagunea edo 'slum'aren egoera agertuko zaigu. Delhi hiriko auzorik handienean zabortegi baten magalean bizi dira 150.000 lagun inguru (erroldatuta daudenak). Kamioiek egunero zabortegiko tontorrean uzten dute hiritik ekarritako zaborra eta auzotarrek plastiko, beira eta beste osagai baliagarrien bila aritzen dira zarama artean, bizirauteko. Aberatsen zaborra, txiroen irribarrea. Bizi gaituen sistemaren oximoron ankerra.

Argazkia: David Julia · Testua: Axier Lopez



Abenduak 3, Euskararen Eguna



"Gazteei buruz hitz egiterakoan, hasi beharko genuke haien gain uzten dugun erruaren zama kentzen. Euskara gazteek erabiltzen dute gehien".

Garikoitz Goikoetxea
(Berria)



"Aurten, Nafarroako Gobernuak estreinako aldiz Euskararen Nazioarteko Eguna ofizialki ospatuko du. Nafarroaren historia euskararen historiari loturik doa. Euskara gurea, denona".

Nafarroako Gobernuak



"Ezin da maila berean kokatu instituzioen eta herritarron erantzukizuna. Erabat lausotutakoa da edukia, Jaurilaritzak ez du egiazko konpromiso politikorik hartzen".

"Zer egin dezaket nik euskararen alde?"
testuarekin ez dute bat egin ELAK eta LABek



ISABELLE MIQUELESTORENA

Ordainketa elektronikoetara saltoa egingo du Euskoak

Iosu Alberdi Atxurra

@atxurraa

Euskoa billeteak eta ordainketa numerikoa batzen dituen lehen tokiko moneta izateko bidean da. Monetatik abiatu zen proiektuak ordainketa digitaletara ere iritsi nahi du, interneteko kontuak eta ordainketa txartelak abian jarritz. Ekimenaren bultzatzaileek bi urtez lan egin ondoren, teknikoki prest daudela azaldu dute, eta bide juridikoa zabalik dutela. Horretarako erabiltzaileentzat ordainketa txartelak egitea proposatzen dute, internet kontu batekin. Erabiltzaileek kontu hori doan sortzeko aukera izango dute, Euskal Moneta elkarteak kudeaturik.

Hala, telefono mugikorretatik eta ordenagailuetatik dirua trukatzeko aukera

egongo da, baita eusko kontuen artean mugimenduak egiteko ere. Bestalde, ordainketa txartel baten bidez saltokietan erosketak egiteko edo aldaguneetan billeteak ateratzeko baliagarria izango da.

2013an billete moduan sortu zenetik, 30.000 eusko baino gehiago banatu dira tokiko elkarteetan eta Ipar Euskal Herriko hainbat saltoki elebidun bihurtzeko baliagarria izan da. Euskoari esker 200 harreman komertzial berri baino gehiago sortu direla azaldu dute bultzatzaileek.

Proiektuak aurrera egin dezan, prozesuan parte hartzeko deia egin du Euskal Monetak. "Euskoa gehiago hedatuz, elkarrekin, Euskal Herri euskalduna, solidarioa eta ekologikoa eraikitzeko urrunago joateko aukera emanen digu!", adierazi dute.

"Askotan galdetu digute zergatik egiten ditugun filmak euskaraz"

JON GARAÑO, ZINE ZUZENDARIA

"Askotan galdetu digute zergatik egiten ditugun filmak euskaraz. Eta askotan ea ez al dugun inoiz gaztelez filmik egingo. Euskaraz eginiko zineak munduan zehar erakutsi du bere balioa. Horrek ez du esan nahi euskaldunentzat itxiak diren filmak egin ditugunik. Euskaldunetz gain, euskaldun ez diren askok ikusi dituztelako euskaraz eginiko filmak. Eta ez ahaztu Rotterdamen edo Seattle-en, berdin duela filma gaztelez edo euskaraz izatea. Berdin-berdin irakurri beharko dituzte ikusleek azpidatziak". 2016-12-01



PARTIDO SOZIALISTAREN PAZIENTZIA DEMOKRATIKOA

EZPELETAN ATXILOTU DUTE, MAREY BAHITZEZ
AKUSATURIK

38 ERREFUXIATUREN
ARGAZKIAK ZETAMAZKIEN
GAINEAN
BATZUK ESPAINIAR POLIZIAREN ARTXIBOTIK
BERTZEAK FRANTZIAR SUPREFETAK (PSF)
ERREFUXIATUEI BEREI GALDATUAK
IHESLARI POLITIKOEN ESTATUTUA BIDERATZEKO

BERE NAGUSIEI MEZU ARGIA HELARAZI DIE
KARTZELATIK:

EZPADIOTE LIBERTATEA
ERDIESTEN, DENA SALTATUKO
OMEN DU PAUEKO EPAIKETAN.

Don Jose Amedo
(EPM)

JOXI ETA JOXEAN BAHITU ZITUENAKOAK BERTZEAK BERTZE

GAL EN SARTU DITZIN, SANCHEZ Legionario
IBILI ZEN AFRIKAN; BAI ETA OAS EN O ETA
SAC EN ERE.



ALO, MOHAMED /
ERRAIOKIL ZERBAIT
AITATTORI!

GRUPOS ARMADOS LIBERACION
ORGANIZATION ARMEE SECRETE
SERVICE ACTION CIVIQUE

TERRORISMO
KOLONIALA

1987 AN BURUTU DA JUDIZIOA; PEDRO ZEN
GABE ORDEA.

GRADIGNANEKO PRESONDEGIAN
ETA EGUNEZ EGUN EMAN IZAN
DIZKIOTEN ESTROGENOEK ITZUL
GABEKO MINBIZIA ERAGIN BAIT
ZIOTEN.



URTE HORRETAN ANDONT ORTUZARREK EGIN ZION GAL IKERTZEARI
DEIAKO ORRIALDEETATIK



Mozal Legea indargabetzeko eskatu du Espainiako Kongresuak bigarren aldiz

Ainhoa Ortega Bretos

@ob_ainhoa

Mozal Legea indargabetzeko onetsi den bigarren mozioa da PSOEk azaroaren 29an agertu duena. Legez besteko mozioa ontzat emateak, ordea, ez du lege aldetik ondorio zuzenik izango. 2016ko apirilean ere hura atzera botatzeko proposamena aurkeztu zuen ERCK. Alderdi-ko bozeramaile Gabriel Rufianen esanetan, Segurtasun Indarrei “esku hartzeko eta erabakiak hartzeko botere handiegia” ematen dielako Mozal Legeak, “berme judiziala baztertuz”.

PSOEko Antonio Trevinen ustez, oinarritzko eskubideak garatzea “oztopatzen” du legeak. Ezartzen diren zigorretan proportzionaltasuna mantendu behar dela azaldu du, eta oinarritzko eskubide eta askatasunak errespetatzen dituen arautegi berri baten alde agertu da.

Mozioaren alde bozkatu dute Elkarrekin Ahal Dugu, EAJ, EH Bildu, ERC, PSOE eta PDC alderdiek. Abstenitu egin da Ciudadanos, eta kontra azaldu dira Foro Asturias eta PP.

“Itxurakeria hutsa”

Informazio Askatasunaren Defentsarako Plataformaren ustez (PDLI gaz-

telaniazko sigletan), mozioa “itxurakeria hutsa” da, ez baitu Mozal Legea indargabetzea bermatzen. Espainiako Kongresuko taldeek hura deuseztatze-ko Lege Proposamen bat sinatzen ez duten arte, Mozal Legeak indarrean jarraituko duela azaldu du kazetarien elkarteak. Horrekin batera, neurri hori aplikatu zaien kazetariei jarritako isunak bertan behera uzteko eskatu du elkarteak.

Espainiako Arartekoak eskatu du ARGIAri jarritako isuna kentzeko

Martxoan Eibarren Naroa Ariznabarretaren atxilotetaren berri sare soziale-tan emateagatik, ARGIAko Axier Lopez bilakatu zen Espainiako Estatuan Mozal Legeak zigortutako lehen kazetaria. Kasu horren harira, Soledad Becerrilek (PPko politikari eta Kultura ministro eta Sevillako alkate ohiak) kudeatzen duen Espainiako Arartekoa isun horren aurka agertu da eta zigorra bertan behera uzteko eskatu dio Espainiako Gobernuaren Delegaritzari. Oinarritzko eskubideei –lege bitartez– ezarritako mugak ezin direla inoiz erabili Espainiako Konstituzioak babesten dituen oinarritzko eskubide berberak kaltetzeko, dio Arartekoak eskutitzean.

EKONOMIAREN TALAIAN

Kapitalaren xantaiak



Juan Mari Arregi

Sidenorrek, EAEko plantetan 2.000 lagunek lantaldea duen euskal industria siderurgikoak, aldi baterako enplegu-erregulazio espedientea iragarri du 2017 eta 2018rako. Talde osoan batez beste %50 lan gutxiago ekarriko luke horrek. Sindikatuen eta enpresaren arteko negoziazioaren ordua iritsi da. Ez litzateke soberan egongo gogoratzea antzeko egoerak gertatu izan direla euskal enpresetan 1980ko urteetako krisiez geroztik. Horregatik, badago arrazoirik susmoa izateko xantaia berriak egon daitezkeela Sidenor Taldearen eskutik; sindikatuek eta langileek ondo egingo lukete adi egotearekin.

Kapitalak, bere lan-baldintzak irentsi arazteko, planak onartzen ez badira negoziazio unean mehatxua egiten du betiko ixtearekin. Sindikatu eta enpresa batzordeak batzuetan plan antisozial horien aurrean makurtu egiten dira, esanez okerragoa litzatekeela lantegien erabateko itxiera edo langile gehiago kalean geratzea. Bere egiten dute Kapitalak erabiltzen duen xantaia eta beldur politika.

Sidenorrek, erregulazio espedientea iragartzeaz gain, esan du “lana egokitzeko plan bat” ezarri nahi duela. Zehazki, langileen malgutasuna, ordu gehiago sartzeko prest egotea, mugikortasun funtzional eta geografikoa, oporraldia banatzea... Murrizketa eta lan eskubideen galera gehiago proposatu du, alegia. Eta sindikatuek negoziazioan izango duten jarreraren arabera, Kapitalak, hots Sidenorrek, modu batean edo bestean xantaia egingo du bere helburuak lortzeko. Produkzio indarra (enplegua) gutxitu nahi du, baina etekinak pilatzen segi. Kapitalaren xantaiaren aurrean, euskal siderurgia eta kalitatezko enplegua defendatzea izan behar luke sindikatuen eta instituzioen zeregina.



JUVENAL BALÁN

Askatasunaren Karabana

KUBA. Fidel Castroren errautsek Habanatik Santiagorako bidea egin dute, Askatasunaren Karabanan. 1.000 kilometro baino gehiago egingo dituzte 1959ko urtarrilaren 2an ejertzito errebolitariak iraultzaren garaipenarekin eginiko bide bera jarraituz, baina aurkako noranzkoan. Santiagon, José Martíren hilobitik gertu geratuko dira Castroren errautsak, Santa Ifigenia hilerrian. Castrok 1953an Martíren omenez bildu zituen “Mendeurreneko generazio” gisa ezagutzen diren kideak, Kubako Alderdi Iraultzailearen sortzailearen jaiotzak ehun urte bete zituenean. Bide guztian zehar, herritarren txaloak izan dituzte lagun.

Gas putzua geratzeko taldea sortu dute Subillan

Iosu Alberdi Atxurra

@atxurraa

Subillan (Araba) hasi duten gas putzuaren proiektuari aurre egiteko Berriztu! taldea sortu da. Ingurumenean eta gizartean gasa ateratzeko zulaketek izan ditzaketen ondorioak ezagutarazi eta proiektua geratzeko presio egitea dituzte helburu.

Alternatibak

Gogoeta bultzatu eta proiektua gelditzeaz gain, alternatibak bilatzea ere bada taldearen asmoa, hartu daitezkeen bideen inguruko hausnarketara deituz. Energia ereduaren berehalako aldaketa bat beharrezkotzat jotzen dute.

Arriskuak

Taldeak dio zulo bakoitza planteatu dutela ikerketarako, baina Arabako lur azpian dagoen gasa ateratzeko ehunka-milaka putzu egin beharko liratekeela, landa eta basoak eremu industrial bihurtuz. Eraginak frackingaren antzekoak dira.

Ekintzak

Kalean mobilizatzeaz gain, ahalik eta bide gehien jorratu nahi dituzte. Hainbat mozio aurrera ateratzen saiatuko dira, instituzioetan ere eragina izateko. Ostegunetan bilera irekiak dituzte, Iparralde gizarte-txean.

ERRAUSTEGIA



200.000

ikusle lortzea da GuraSOSe egindako bideoaren erronka, Gipuzkoan egin nahi duten erraustegiari buruz. Hedabideen “isiltasun informatiboa” hautsi nahi dute.

8.000-10.000 herritar bildu zituzten azken manifestazioan, diote, eta hedabide batzuek emandako “ehunka” zifra kritikatu dute.



ARGITALETXE BERRIA

Iruñeko Katakarak liburu dendak argitaletxea sortu du. Angela Davisen *Askatasuna, etengabea borroka bat* eta Srečko Horvaten *La radicalidad del amor* lanekin ekin dio Katakarak-ek liburuak argitaratzeari.



NEGOTIAZIO MAHAIA

Urtarrilean bilduko dira negoziatio mahaian lehen aldiz ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuak eta Confesbask patronala, sektorearteko itun bat lortzea xede. Confesbask jarraera aldatu eta “bake sozialaren baldintza” kendu du, ELAren esanetan.



HOLLANDEK AGUR

François Hollandek uko egin dio Frantziako presidente berriz izateko aukerari eta ez da alderdi sozialistako primarioetara aurkeztuko. Oraingoan zazpi dira primarioetan aurkezteko prest daudenak. Hollanderen agurra egungo lehen ministro Manuel Valli ere hautagaizarako atea ireki dizkio.

Fidelek iraungo ote duen Kubako agroekologiaren patuak erakutsiko du



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Kuba trantsizio betean murgildurik utzi du Fidel Castrok. Hezkuntza orokortua, herrialde aberatsenekin alderatzeko bizi esperantza, osasun sistema eredugarria... eta, bestetik, jendeen kontsumitzeko irrika, sistema politikoa irekitzea eta ekonomia mundu globalizatuari egokitu beharra. Azken 25 urteotan kubatarrei elikadura bermatu dien nekazaritza ereduaren iraun edo ahultzeak adieraziko du Kuba norantz doan.



Mende erdi batez hartu badio Kuba iraultzaileak gaina AEBek ezarri eta mundu aberatsak oro har zorrotz berretsitako blokeoari, kubatarrek antolatutako erantzunen artean –alde batera utzirik militarki ondo prestatzea– bi nabarmendu izan dira sarri: osasun sistema muturreko egoeretan funtzionatzeko eta herritar guztiak duintasunez elikatzeak antolatzea.

Nekazaritza kubatarrek, ordea, potentzia kapitalisten blokeoa adina laborantza eredu komunista zentralizatua kolapsoa behar izan ditu gainditu. Sobietar Batasunak bere inguruan antolatutako sareak 90eko hamarkadan porrot egitean blokeaturik geratu zen Kubako nekazaritza.

Ordura arte, uharteko soroen %75ean azukre kaina ekoizten ari zen laborantza industrialaren efizientzia bilatuz, ordainetan janariaren %60 inportatzeko. Pestizida gehienak, ongarraren erdia eta aziendetzako pentsu asko bezala. Petrolio ere kanpotik erosi behar zen, traktoreak, makineria gehiena, gero azukrea esportatzeko.

Berlingo harresia eroriz geroztik, janariaren inportazioa erdira jaitsita, kubatarren dieta izugarri urritu zen: kaloriak %36an, proteinak %40an eta koipeak %65ean. Herritar gehienak argaldu ziren lehen urteetan. Goseari Habanako gobernuak erantzun zion batetik ahulentzako –zaharrak, ama berriak, haurreak...– janari programekin eta bestetik herritarrentzako arrazionamendu

txartelarekin. Alabaina, antzeko egoera larrian sistema mekanizatu zentralizatuarekin jarraitu eta bere populazioa gosetera kondenatzen ikusi zuen Ipar Korearen alderantziz, Kuban nekazaritza osoa birmoldatu zuten eta 2003rako berriro herritarren dieta 2.470 kaloria-taraino iritsia zen, hori, gringoen blokeoaren gainera, Munduko Bankuaren laguntzarik gabe.

Urteotan petrolioan oinarritutako nekazaritza utzi eta bestelako eredu batera aldatu behar izan dute. Lehengo teknika usadiozkoak berreskuratu dituzte laborariak, aldi berean teknologia berriak ezagutu eta pestizida naturalak eta ongarririk ekologikoak egin eta erabiltzen ikasiz. Traktoreen ordez idi eta zamarietara jo dute berriro. Azukre-kainatan ari ziren granja asko ere etxalde txikiagoetan berrantolatu da.

Kuba “agroekologiaren paradisu” bilakatu duen transformazioa maila askotako erabakien fruitu izan da. Funtsean, Habanako gobernuak nekazaritza deszentralizatzeari ekin zion 90eko hamarkadan: *guajiro* [baserritar] txikiei autonomia zabaldu, kooperatiba berriak legeztatu, granja industrial eraginkortasunik gabeak desegin, herri lurragi laga nekazari berriei... Planifikatzeko eta komertzializatzeko eskumen asko udalei pasatu ere bai.

Miguel A. Altieri eta Fernando R. Funes-Monzotek *Laborantza kubatarren paradoxak* ikerlanean azaltzen dutenez, urteotan 100.000 etxalde txiki baino

gehiago sortu dira Estatuak banatutako milioi bat hektareatan. Gainera, badira 383.000 hiri-baratz, 1,5 milioi tona baratzki ekoizten dutenak. Denen artean, “*Período Especial*” aurretik baino %73 kimiko gutxiago erabiliz Kubari baimendu diote bere elikadura burujabetasuna sendotzea, atzerriko jakien inportazioak mugatuz uhartean ekoizten ez diren eta: olio, eta beste.

Zabaltzea ez dela beti salbatzea

Pestizida eta ongarririk kimikorik gabe produktibitate handiko laborantza egiten ikasi dute kubatarrek, baina horretarako erabakigarria izan da –behar gorriaz gain– gobernuak milaka teknikari jartzea *campesino*ekin elkarlanean agroekologia modu zientifikoan garatzen. Gaur munduan *peak oil* osterako trantsizioaz kezkatua den edonork daki kolapso garaian herritarren elikatzeko beharrak ase beharko dizkien agroekologia nonbait ikusteko praktikan, Kuban ikusiko dutela.

Baina Kubako agintariek esku batez agroekologia sustatu duten bezala, bestearekin jarraitu dute ongarririk askoko eta teknologia konplexuzko laborantza ere indartzen. Azken urteotan, batzuetan Venezuelak eta Brasilgo konpainiekin elkarlanean, ugaritu dira soja, arto, patata eta abarrei eskainitako monolabore soroak.

Kubatarrek inbertsio handiak egin dituzte bioteknologian ere, beren transgeniko propioak sortuz. Arduradun kubatarrek diote hemen bioteknologia ez



IPS agentziarentzako Jorge Luis Bañosek egindako argazkian Iraida Semino Habana ondoko La Lisa herrian daukan hiri-etxaldearen atarian. Ekonomian lizentziatua, bi gaztetxoren ama dibortziatua, 2013an ekin zion nekazaritzari, 2008an Raul Castrok herri lurak partikularrei errentan eskaintzeko egindako erreformaren babesean. Barazkiak ekoizteaz gain, baditu idiak, zerriak, ardiak, ahuntzak eta oiloak ere. Nekazaritzan 100 gizoneko 30 emakume ari dira Kuban.

dagoela enpresa handien kontrolpean ez eta ere beste herrialdeetan nagusi den jabego intelektualaren baldintza beretan, eta Kuban lana egiten dutela ingurumena zaintzeko bio-segurtasun arau askoz zorrotzagoekin. 2009an 6.000 hektareatan ereina zegoen FR-Bt1 arto transgeniko kubatarra.

Transgenikoaren zabaltzeak berekin baitakar pestizida sofistikatuen ugartzea, kimikoen produkzioa handitzea ere sustatzen du gobernuak. Aurten bertan Habana ondoko Artemisa herrian kimikagintzan ari den Juan Luis Rodríguez Gómez enpresa publikoak ekin dio glisofato kubanoa ekoizteari, bere gain hartuz orain arte inportatzen zena –Monsantoren Roundup famatua horixe da, glisofatoa– ordezkatzeari.

Nekazaritza ereduez eta tartean transgenikoez asko eztabaidatzen da

Kuban azken aldi honetan. Gehiago jankin nahi duenak –gaztelania bada ki– ondo egingo du entzunda “*Agroecología y transgénesis: ¿Enemigos o posibles aliados?*” eztabaida Cubadebate hedabide elektronikoan, alde batetik Luis Montero Cabrera Kubako Kimikaren Elkartearen lehendakaria, bestetik Giraldo Martín Matanzaseko *Indio Matuey* agroekologia zentro esperimentaleko burua.

Etxalde kubatarren etorkizuna, ordea, barneko eztabaida teoriko-praktikoetan baino gehiago jokatu da uhartearen isolamenduaren amaierarekin. Ivet Gozalezek IPS agentziako kronika bati, martxoan, izenburu adierazgarri hau ipini zion: “*Deshielo con Estados Unidos pone a prueba agroecología cubana*”. Barack Obamak Habana bisitatu bezperan, Humberto Ríos agroekologiaren susta-

tzaile nagusietakoa izan den teknika-riak –*Goldman* nobel alternatiboaren irabazlea bera– kazetariari azaldu zion bere kezka, Kubaren kanporako irekitzeak ondorio oso kaltegarriak ekar ditzakeelako: “Ez badira neurriak hartu eta arazo atzeratuak konpontzen, gerta liteke nekazaritza konbentzionalak eta bere produktuek irenstea agroekologiaren 25 urteak”.

Pinar del Rion nekazari den Elsa Davalosek kezka bera agertu du, nabaritu duelako hainbeste urtez ongari eta erremedio naturalak sustatu ostean zein erraza den epe laburreko etekinak eskaintzen dituzten kimikoetara pasatzea: “AEBen negoziaketekin gureganaino ere zabalduko dira mundu osoko nekazaritzan gainezka dauden kimikoak. Urteotan egindako lanari eustea oso zaila gertatuko zaigu”. ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Lurdes Zabaltza, Mikel Zabaltzaren arreba

«Mikelekin zer gertatu zen badakigu, aitorpena falta da»

26 ditu azaroak urtero. Mikel Zabaltza guardia zibilek atxilotua, Intxaurrondora eramana. "Ez dago hemen"; omen. Handik hoge egunera, 15 dituenean abenduak, Endarlatsako putzuan agertu da gorpua, bertara eramanez Intxaurrondoko guardia zibilei eskapo, itota; omen. Segurtasun-indarrek beti dute gehiago indarretik segurtasunetik baino, hemen eta munduan.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

31 urte dira anaia Mikel hil zutela. Batean eta bestean hitz egin izan duzu, kazetariak eta ez-kazetariak galdeturik. Bada 31 urte honetan esan ez duzunik?

Gauza asko. Hala ere, esan beharrak esaten ditugu, ez pentsa. Baina seguru gauza asko esan gabe gelditzen direla. Batzuetan, ez direlako etortzen, eta beste batzuetan, munduari ez zaizkiolako inporta. Esate baterako, gure txikitako kontuak, gaztetakoak... munduari ez zaio horrelakorik inporta, kasua baizik, Mikelekin gertatu zena.

Zenbat anai-arreba izan zineten etxean?

Zazpi ginen. Mikel zen zaharrena, bigarrena ni, txikitari elkarrekin ginen beti Mikel eta biok. Elkarrekin joaten ginen eskolara, elkarrekin lanera, aitari aزيندان laguntzen. Elkarrekin ginen nerabezaroan ere. Elkarrekin izan ginen beti, nahiz eta gaztetan nork bere bidea hartu zuen. Mikel Donostiara joan zen lanera, eta ni berriz, Iruñea aldera.

Zu ez ezik, zure ahizpak ere ikusi izan ditut hedabideetan Mikelen kasua kontatzen.

Esate baterako, Arantxak omenaldietan hitz egiten du. Bestela, Idoia eta Begoña

ere -etxeko txikienak, bizkiak-, agertu izan dira hango edo hemengo egunkarietan.

Denok berdin kontatzen duzue "kasua"?

... Ez dugu kontatzen... Nafarroako Parlamentura joan ginenean, adibidez, gure artean hitz egin genuen, gutxi gorabehera denok gauzak berdin xamar esan beharra dauzkagulako, baina etxean asko kontatzen da, asko, horretaz hitz egitea... Orain, dokumentala egiten ari diren honetan, gehixeago hitz egin da. Hala ere, esaten dizut, asko kontatzen da hartaz hitz egitea. Omenaldia delarik, omenaldia, han bi hitz egingo ditu Arantxak, eta besterik ez. Ez da gai goxoa, ez. Gutxitari hitz egiten da. Beharbada hobe gure genueke bildu, hitz egin eta barnea hustu. Nik bizipen jakinak ditut, nire senideek bezala, zeren eta garai hartan haiek Orbaizetako etxean zeuden, eta han gertatu zen gauza gehiena. Inor inora joatekotan, Orbaizetara joaten zen, gure etxera. Ni, berriz, Iruñea ondoan bizi nintzen ordurako. Ama, esate baterako, ez zen gauza hori kontatu zalea, "Ez dut hori berriz kontatu nahi!", esaten zuen.

Noiz hil zitzaizkizuen gurasoak?

Ama 1998an, aita 1992an.

Nola eragin zien Mikelen heriotzak?

Zizko eginak gelditu ziren. Amak depresio ikaragarria izan zuen, urteak

Lurdes Zabaltza Garate

1954, Orbaizeta

Zazpi seme-alabako familian, lehena zen Mikel, bigarrena Lurdes. Andereño izan zen irakasle ikasketak egin aurretik, 1972an. San Fermin ikastolan hiru hilabeteko praktikak egin eta Larrasoainen eta Zubirin jardun zuen lanean, magisteritza ikasketak ere eginez 1982an. Barañainen irakatsi zuen gero. Harrezkero, bulegoko lanean aritu zen. Mikel 1985ean hil zuten. Aitaren minbizia. Amaren depresioa. Lurdesen minbizia. Lanerako ezgaitua dago: "Itxura ez daukat txarra, baina segituan nekatzen naiz. Ez dut bi perretxiko balio". Lurdes da, Mikel Zabaltzaren arreba: "Mikel nire anaia zen, eta kito".

ARTZAIAK,
ANAIAK
ORBAITAK
AN,
LEXATZEN
ZINEKO
A



behar izan zituen onera etortzen. Aitak, berriz, hil egin nahi zuela esan izan zuen, Mikelen ondora joateko. Zen gizon bat oso indartsua, oso sasoi onekoa... Ezagutzen zutenek beti esaten zuten: "Gizon honek daukan osasuna! Ehun urte ere iraun behar du!". Eta gero, minbiziak jo eta bi egunean eraman zuen.

Bularreko minbiziak jo zintuen zu.

Bai.

Esaten dutenez estres egoera gaitzak dira minbiziaren jatorrien artean.

Hala diote. Nire minbizia horren ondorio dela esaten didate. 2000. urtean sortu zitzaidan gaitza. Egia den ez dakit. Nik baino gehiago dakitenak badira esateko harremanik baden edo ez.

Dokumentala aipatu duzu arestian.

Bai. Hor nork bere esatekoa du, eta nik, esaterako, transmisioaz hitz egiten dut, zeren eta bi alaba neuzkan garai hartan, eta kasua alabei nola transmititu zen nire gaia.

Iruñean zinen Mikel atxilotu zutenean, 1985eko azaroaren 26an.

Baita ama ere, nirekin zen, aitagina-rreba erresidentzian geneukalako. Goizean, telefonoz deitu zuten esanez etxeko bi anaia, Aitor eta Patxi, atxilotuta zeudela. Lanera joana nintzen ordurako, eta haraxe deitu ninduen amak. Lanean esan eta irteten utzi zidaten. Patxi Zabaleta abokatuarekin hitz egin, habeas corpus-a eskatu eta Iruñeko kuartelera joan ginen. Han zeudela esan ziguten. "Mikelek ere jakin egin behar du!", esan genuen, eta etxera deitu genion, Donostiara, han egiten baitzuen lan. Baina inork ez zuen hartzen. Lan egiten zuen Donostiako Tranbia konpainiara deitu, eta han ere ezer ez. Lanera joan behar zela, baina ez zela azaldu. Neskalgunaren etxera deitu, eta Idoia Aierbe ere atxilotuta zegoela jakin genuen, guardia zibilek eraman zutela. "Mikel ere atxilotuta egongo da!". Iruñean Zabaleta-ekin izan ginen, eta Donostian, berriz, Iñigo Iruinekin. Intxaurrondora jo zuten, ukatu egin zieten Mikel han zegoela. Are gehiago, han amari esan zioten semea galdu bazuen, objektu galduen bulegora joateko.

Biktimak

"Iñaki García Arrizabalagarekin egon nintzen Nafarroako Parlamentuan, hitz egiten, gure kasuak kontatzen. Iñakiri aita hil zioten Komando Autonomo Antikapitalistakoek Donostian. Bahitu zuten eta Ulian hil [1980an]. Gu ez ezik, beste biktima batzuk ere egon ziren parlamentuan, eta beti dira askoz gehiago alde batekoak bestekoak baino".

Lege antiterrorista

"Nik uste Espainiako Estatuari barkamena eskatzea dagokiola. Eta Lege Antiterrorista kendu. Lege hori indarrean dagoen bitartean, eta inkomunikazioa eta tortura, edozer gerta daiteke. Bitartean, babes osoa dute poliziak nahiz guardia zibilak".

Intxaurrondo

"Intxaurrondoko buruak terrorismo delituengatik epaitu eta kondenatu zituzten. Baina Enrique Rodríguez Galindori gradua goratu zioten, domina jarri. Orduko Espainiako Barne ministro Jose Barrionuevo kartzelara sartu zuten, eta zenbat denbora egon zen? Eta nola joan zitzaizkion alderdikideak kartzela atarira, babestera? Horrela, Barrionuevok baimendu zituenak ere babesten zituzten. Hor dira horiek oraindik".

Hortik dokumentalaren izena! "Objektu galduak"!

Bai... "Objektu galduak"... Aitor eta Patxi arratsaldeko bietan eta hiruretan askatu zituzten, libre, kargurik gabe. Oroitzen naiz amaginarrebarekin erresidentzian bazkaltzen ari nintzela bi anaiak agertu zitzaizkidanean. Aldiz, Mikelekin batera bizi zen Manolo lehengusua eta Idoia, Madrilera eraman zituzten, Lege Antiterrorista pean.

Azaroaren 26an atxilotu, abenduaren 15ean agertu zen Mikelen gorpua. Zer izan zen egun horietan?

Istorio asko egun horietan. Hasteko, ukatu egin zuten Intxaurrondon zegoela. Gero, bertsio ofiziala zabaldu zuten, atxilotuta eduki zutela, eta itaunketan Mikelek bere borondatez aitortu zuela zulo bat zuela Endarlatsan -inoiz ez zuten esan armamentua zen, lehergaiak ziren-, eta haren bila eraman zutela Mikel, hiru guardia zibilekin. Inori ez zaio buruan sartzen zulo baten bila atxilotua eta hiru guardia zibil ibiltzea, baina hori ere esan zuten. Guardia zibil bat aurretik, bi zituela atzean Mikelek, batari kolpea eman eta erre kara bota zuela bere burua. Sinestezina... Hurrengo egunean, Guardia Zibilaren sindikatu klandestinoak esan zuen ez ibiltzeko bila, Intxaurrondon akabatu zutela.

Eta zuek?

Sinetsi nahi genuen eskapatu zela! Gero, Auritzeko kuarteleko guardia zibiletako bat Orbaizetako etxera ere etorri izan zitzaigun, esanez beste aldean halako herrian halako etxean ikusia zutela Mikel behin baino gehiagotan. Baina ez zen horrelakorik, jakina. Nola egongo zen, bada, han. Itsasoko Gurutze Gorria Mikel ustez eskapatu zen urbazterra arakatzen ibili zen, lagunak mendi inguruan Mikelen bila... Eta, horrela, bezperan Gurutze Gorria bila ibilitako lekuan, hantxe agertu zen Mikel, hila.

Hogei egun.

Ez oinutsik, ez bilutsik, ez arrainek jana. Osorik agertu zen, jantzita, bi oineta-koak zituela, arrainek ukitu gabe. Mikelek ez zituen hogei egun haiek uretan iragan.

Zein da zuen bertsioa?

Tortura pean hil zutela, bainera egiten ari zirenean, zeren eta Manolo lehen-

gusuak aditu zituen Mikelen garrasiak, eta haren botakak. Idoiak ere ikusi zuen plastiko pean edo zer edo zer, eta gorpuzkerarengatik Mikel zela zioen. Eta guardia zibilen komentarioak: “Oso gaizki dago, joan egin zaigu!”. Horrelakoak... Manolok gure amari esandakoa: “Izeba, Mikelek ez zuen batere indarrik eskapatzeko. Nik aditu nuena aditu eta gero, Mikelek ez zuen ezer egiteko indarrik”.

Eta abenduaren 15ean, gorpua agertu zenean?

Luis Roldanek, Guardia Zibilaren zuzendari nagusia, deitu gintuen. Niri egokitu zitzaidan telefonoa hartzea. Gorpu bat eskuburdinak jarrita agertu zela Endarlatsan esan zidan. Nik ez nuen horrelakorik sinetsi nahi: “Segur nire anaia dela?”, eta “Nork behar du, bada, izan?”. Handik berehala, Efe agentziak deitu zuen: “Eta orain zer diozue?”, “Bada, uretara bota dutela, beren bertsioari sinesgarritasuna emateko”. Gero, gure kontrako salaketa jarriko zutela ere ekarri zuen prentsak, lagun batek esan zidanez, difamazioagatik, omen. Hurrena, Espainiako gobernuko presidente Felipe Gonzalezek esan zuen entenditzen zuela familiaren minak eragindakoak zirela gure hitzak eta ez zuela salaketa-rekin aurrera egingo.

Garai hartan Donostiako Herri Irratian lanean ari zen kazetariak esana da Mikel desagertu zenetik agertu bitartean hura izan zela albisteetan lehena.

Guk irrati eta prentsa bidez jakiten ginen gauzak. Lanean ari nintzela ere, ordu oro jartzen nuen albistegia, ea berririk jakiten genuen.

Eta Mikel agertu zenean?

Amorrua, ondoeza, ezina... Dena! Alde batetik, “poztu” egin ginen, agertu zelako. Hila zen, baina makurrago izango zen hila eta galdua. Alde horretatik, espero dut orain Naparraren familiak argia ikustea, hainbeste urte eta gero.

31 urte honetan, Mikel Zabaltza gogoan, izan duzue laguntzarik, babesik, aitorzarik?

Jende askok gure alde egin du, izugarriko laguntza eman digutenak. Haientzako esker ona besterik ez daukagu. Haiei esker oihartzun handia izan zuen Mikelen kasuak, eta iritsi zen gure kexa Ma-



IÑIGO URIZ / ARGAZKI PRESS



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS



JON URBE / ARGAZKI PRESS

Lehen bi argazkiak 2014koak dira, Mikel Zabaltzari egindako omenaldi banatakoak.

Bigarren argazkian Lurdes Zabaltza arreba ageri da.

Hirugarren argazkia 2015ekoa da, Euskal Herrian torturak izan duen eragina aztertzen duen 'Galdutako objektuak' dokumentalaren proiektua aurkeztu zenekoa.

drileraino, eta behartu zuten azkenean Barrionuevo esatera: “*Aparecerá, o será encontrado*” (Agertuko da edo aurkitua izango da). Badira kontra egin dutenak ere. Instituzioen aldetik, berriz, ezer ez, Glencree-ra deitu gintuzten arte. Guretzat errekonozimenduaren balioa izan zuen hara deitzeak. Ofizialki ez da ezer, baina instituzioak egiten zuen onarpena izan zen, Mikel hil egin zutela aitortuz. Poliki-poliki, aurrera egin du horrek. Nafarroako Parlamentuan egon ginen beste zenbait biktimarekin batera, aurtan Gasteizko legebiltzarrean egon gara. Bake eta Bizikidetzeta Idazkaritzatik gonbidatu gintuzten eta joan ginen. Instituzio batek kasu egiteak asko esan nahi du guretzat. Askok laguntzen dizu.



Azken hitza:

Ez objektu, ez galdua

"Semea galdu baduzu, jo objektu galduetara!". Intxaurrondoko guardia zibila Mikel Zabaltzaren amari esana. Ez objektu, ez galdua. Mikel Zabaltza kasua da, epaileek bitan irekia, bitan itxia. Kito kasua Espainian. Intxaurrondoko guardia zibilek mutil gazte bat hila.

Nafarroako Parlamentuak Polizia indarkeriaren biktimen legea onartu zuen iazko martxoan, baina Espainiako Gobernuak errekurritu egin zuen abenduan. Aurten, Gasteizko legebiltzarrak ere onartu du gisako legea.

Eta EAEkoa ere errekurritu egin du Espainiako Gobernuak. Errekonoizitu beharrean, errekurritu. Ez dute egia azalera ekarri nahi. Ez dakit zer ondorio ekar ditzakeen egia onartzeak. Bestela, ez dakit zertan ari diren errekurtsioak jartzen. Nafarroako Parlamentuak legea onartu zuen, Espainiako Gobernuak errekurritu zuen, eta EAEkoa onartu zutenean, pentsatu genuen: "Ausartuko dira hemen ere berdin egin? Lehen ere

frankismo garaian indarkeria politikoa-ren biktimak aitortu zituen Eusko Legebiltzarrak. Haren kontra ez zuten egin, hau ere ez dute errekurrituko, ez dira ausartuko...". Bada, bai, ausartu dira, errekurritu dute.

Inoiz jakingo da egia?

Aitortuko dute inoiz egin zutena? Guk ez dugu batere zalantzarik, matizen bat ez bada. Badakigu zein den egia, eta hor daude prentsan argitaratutako konfidentziak eta beste guztiak. Baina hor geratzen dira informazio horiek. Beste urratsik egingo duten ez dakit. Paper klasifikatuak desklassifikatuko dituzte inoiz? Dena da galdera eta zalantza alde horretatik, baina Mikelekin zer gertatu zen kontatuta dago. Bada Mikelen heriotzaren 25. urteurrenean Arkaitz Almorzak prentsan idatzitako erreportajea, dena kontatzen duena. Mikelekin zer gertatu zen badakigu, aitorpena falta da.

Zein egunetan jaio zen Mikel?

Abuztuaren 2an.

Zer izaten da abuztuaren 2an zuen etxean?

Deus ez. Haurrek *Mima* deitzen zuten, eta haiek esango dute: "Gaur *Mimaren* urtebetetzea!". Beti aipatzen da. "Gaur urteak egingo zituen!". ■



Tolosako Babarruna

BERTAKOAK
GUREAK
GOZOAK
KALITATEZKOAK

Hoberenak soilik
aukeratzen ditugulako

☎ 943 650 253

www.tolosakobabarruna.eus



Indarkeria transistemikoa

Soragin eta Anitzak elkarteko Liz Quintanak aho bete hortz utzi gaitu Donostian Emakumeen Mundu Martxak deituta bildu garen feministok, honako itaun hau entzun ostean: “Zure bikotekideak nola janzten zaren, noiz ateratzen zaren eta norekin hitz egiten duzun kontrolatzen badu, argi daukagu hori indarkeria dela. Baina, zer gertatzen da kontrol jarrera horiek zuen nagusiak egiten baditu?”.

Jardunaldien helburua indarkeria matxista kontzeptua birpentsatzea izan da. Erronka horrek beldurra eman ohi du, errazagoa baita doktrina argi eta sinpleak defendatzea. Hala, feminismoan maiz entzun izan dugu indarkeria matxista azaltzen duen osagai bakarra erro patriarkala dela. Areago, Espainia-ko Legearen arabera, genero indarkeria bikote heterosexualaren esparrura mugatzen da.

Askok diotenez, kontzeptu bat gehiegi zabaltzen badugu esanahia galtzen du, desitxuratzen da: dena indarkeria baldin bada ezer ez da indarkeria. Quintanak berak, erresistentzia horri erantzun dio haxe esanez: “Indarkeria kontzeptua zabaltzeak borroka ahultzen du, berau ‘koherenteagoa’ bihurtzen du eta bazterkeria berriak saihesten laguntzen”.

Hasieran aipatutako galdera egitean, etxeko langileei buruz ari zen Quintana. Haren esanetan, lan mota hori, uga-zabarekin bizitzera behartzen duena, indarkeria da berez, oinarritzko hamaika eskubide urratzen dituelako ezinbestez: intimitatea, atsedena eta sexu eskubideak garatzeko aukera, besteak beste. Etxeko langileen %90 baino gehiago emakumeak izanik, ez al dute lan indarkeria hori bizi gizarte patriarkaleko emakume izateagatik? Ugazaba gizonezkoa denean, langileek sexu jazarpena ere salatzen dute maiz. Kasu horretan argi daukagu indarkeria matxista dela.



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Emakumeen Mundu Martxako bultzatzaileek argi daukate sexismoa berez ez dela emakumeok bizi ditugun indarkeriak azaltzeko nahikoa. “Indarkeria transistemikoa” kontzeptua proposatu dute zapalkuntza sistema anitzak nola uztartzen diren hobeto deskribatu eta uler dezagun

Baina ugazaba bikote heterosexualako emakumezkoa baldin bada? Gatazka horren oinarrian sexismoa ere badago, esan du Quintanak: etxeko langileek ustez emazteek doan egin behar luketen lanak egiten baitituzte, eta logika horri jarraituz, emaztearen ardura izango da behargina kontrolatzea; polizia gaiztoaren papera hartzea.

Emakume Mundu Martxako bultzatzaileek argi daukate sexismoa berez ez dela emakumeok bizi ditugun indarkeriak azaltzeko nahikoa. “Indarkeria transistemikoa” kontzeptua proposatu dute zapalkuntza sistema anitzak nola uztartzen diren hobeto deskribatu eta uler dezagun. Etxeko langileen eta zaintzaileen kasuan indarkeria transistemiko hori argi dago: sexismoaz gain, xenofobiak (atzerriartasun legeak horrelako lan prekarioetara baztertzen ditu emakume etorkinak) edota klasismoak (garbitzailearen estigmak errazten ditu errespetu faltak) eratzen du langile hauen egoera. Prostituzioarekin gauza bera gertatzen da. Liz Quintanaren mahai-inguruan Ericka Arbizu sexu langileak ere parte hartu zuen: emakumea, transexuala, etorkina. Argi dago sexismoaz gain, xenofobiak eta transfobiak mugatu dutela bere bidea, denen nahasteak alegia.

Transfeministek aspaldi defendatu dute (dugu) ez dela kasualitatea instituzioek defendatzen duten indarkeria matxistaren definizio hertsia, ezkonduko emakume txuri heterosexuala erreferentzia bezala hartu izana. Mahai-inguruan, greban dauden erresidentzietako langileen bozeramaile batek esan du euren sektorea hain feminizatua egon arren, ez dutela nahi bezainbeste sumatzen feministon elkartasuna. Hirurek haxe eskatu digute nolabait: “Feministok ere birpentsa dezagun gure eztabaidak eta politikak zein emakume hartzen duten erreferentziazat eta zein uzten kanpo. ■

Aukeratu ezin duzun gauza bakarra

Miribilla, 2016-IX-17. EH Bilduren mitina: "Hil ezin zenituzten langileen seme-alaben ordua" (*). Miren Larrionen hitzak dira. Kanpainaren profil baxuko mezuak kontuan hartuta (denak lagun, denak adosteko prest, antagonismo politikoa desagertua), Larrionen hitzak markatuko gidoi txepetik atera omen ziren.

Zergatik? Agian, aukeratu ezin dugun gauza bakarrari buruzko aipua zelako. Nortasuna eta identitatearen kontzeptuen inguruko zerbait esan nahi zigulako, ziurrenik nahi gabe. Nor gara? Akaso gure identitatea hautatu ahal dugu? Zinezko identitatea diseinatu ahal dugu denboraren poderioz, bizitza baten bilakaeraren emaitza bezala? Hil ezin zituzten langileen seme-alabak gara ala ez? Hau ezin dugu hautatu, gurekin dator ala ez.

Gaurko gizartean, identitate asko gurutzatzen dira gure barnean, zer garen eraikitzeko prozesuan. Ia guztiak hautatuak dira, sehaskatik ez datoz gurekin, eta bizitza osoan alda ditzakegu. Abertzaleak ala espainiar zaleak izan gaitezke; kristauak ala ez; ezkertiarak ala eskuindarrak; ekologistak ala ez; sexuaren inguruko hautuak... eta abar. Denok ezagutzen dugu hautu horien artean mugitu den norbait (urte gutxitan gauza bat eta kontrakoa izaten).



Iván Giménez

KAZETARIA

@lvnGimnez

La Polla punk taldearen omenezko kontzertuan abesti hura berriro entzutean, arreta berezia jarri nuen nire ingurukoengan. Eta langile haien seme-alabak ziruditen, barneko zerbaitek zirrara eragiten zielako

Bestalde, Messi edo Ronaldo ez bazara, bizimodua ateratzeko zure lan-gaitasuna saldu beharko duzu, derrigorrez, egunero eta alternatibarik gabeko merkatu krudel batean. Ez dugu aukerarik. Ezin dugu hortik ihes egin. Orduan, zertan oinarritzen da gure benetako iden-

titatea? Zer gara, ezinbestean? Gurekin datorrena eta bizitza osorako gurekin egonen dena: lan egiteko beharra.

Gauzak horrela, aukeratu ezin duzun hori zara zu, ez besterik. Horregatik diot: "Hil ezin zenituzten langileen seme-alabak gara" esateak gure sustraian dagoen zerbait azaleratzen duela, gure sakonean gordeta daukaguna argitara ekarriz. Azken finean, langile haien seme-alabak gara ala ez. Orain gutxi, Iruñean, La Polla punk taldearen omenezko kontzertuan abesti hura berriro entzutean, arreta berezia jarri nuen nire ingurukoengan. Eta langile haien seme-alabak ziruditen, barneko zerbaitek zirrara eragiten zielako.

Ordea, Ramón Espinarrek (Madrilgo Podemoseko buruzagia) bere burua saldu zuen zorigaitzoko txio batean "hil ezin zenituzten langileen seme-alabak gara" aireratu. 2014an idatzi zuen, baina aurten gogoratu diote (nork eta Cristina Cifuentesek) bere aita dela Caja Madrid-eko black txartelak erabiltzen zituztenetako bat. Ramon gaixoak ez du bere aitaren ustelkerien errurik, baina... Zinezko identitatea ezin da asmatu. Harrapatuko zaituzte eta arerioek zure kontra erabiliko dutelako.

* La Polla punk taldearen *No somos nada* abestiko pasartea. ■



**BERNAT
ETXEPARE
LIZEO BERRIA**

HAZTEN GAITU, HAZTEN DUGU

SUSTENGU  **KANPAINA**

" LANDA DEZAGUN EUSKARAREN SAGARTZEA "

LAGUNTZA 1 = SAGARRONDO 1

Ipar Euskal Herriko euskal lizeo bakarrak.
300.000€ behar du gelak hornitzeko

WWW.BETXEPARE.EUS

Edozein herriko jaixetan



Jose Ignazio Ansorena
TXISTULARIA

S ukalde jai berezia antolatu du Donostia 2016k. Janari oso pikantearen eguna. Laurogei mila arrazio banatu dira: txorizo pin-txoak, baratxuri-zopa eta kokotxak. Donostiako Alderdi Ederren paretik pasatu den orok probatu behar izan du. Inguruetakotxeetan ere, txirrina jo eta bertan zeuden guztiei janarazi diete. Berdin da alergia izan, ohean gaixorik egon edo gustukoa ote zuten ere. *Por cojones!*

Horrelakorik, egia, ez du antolatu Donostia 2016k. Musika edo zarataren alorrean, aldiz, oso antzekoak behin eta birritan: zarataren inposizioa. Eta ez eurek bakarrik, ustez kultura hedatzeko sortutako erakunde, elkarte eta enpresa askok etengabe *edozein herriko jaixetan*.

* * *

Unibertsitatean ikasle hasi nintzenean, irakasle askok erretzen zuten eskola eman bitartean, *Aurrerakoiek* ikasleei ere uzten zieten hori egiten. *Atzerakoiek* ez.

Urte haietan unibertsitateko ikasleen batzar bizi eta sutsuek libertatearen aldeko garrasia zabaltzen zuten kolore desberdinez, gorri, berde, urdinxka edo morez, beti ozen. Haietako askotan aipatu nuen gure geletako ke kontzentrazio horrek kalte egiten zidala, eztarria txartu eta begiak gorritu. *Buuu* handiak besterik ez nituen jasotzen. Gelan erretzea "libertate seinala" baitzen. Horretan gorriak, berdeak, moreak eta urdinak bat zetozen.

Erretzaile haietatik bizirik geratu diren gehienek ez dute egun erretzen eta ez lukete horrelakorik onartuko. Areago, euren bilobak doazen eskola edo unibertsitateetan antzekorik gertatuko balitz, salatu egingo lukete. Baina zarataren alorrean onartu egiten da. *Edozein herriko jaixetan*, ekitaldi politikoetan, lasterketak direla, hondartzako futbola, etxe azpiko tabernariaren lehengusuari almorrrana sendatu zaiola... Burrumba etengabea.

* * *

Berrito tabakoaren segida bera gertatuko da. Urte batzuk barru azterketa zientifikoek erakutsiko dute era ukaezinez zarataren ugaltzea zein kaltegarria den. Eta batez ere batzuek kontuak aterako dituzte eta jabetuko dira ez zaiela errentagarri gertatzen tolerantzia hau: boteretsuen-tzat zaratak babuak eta pentsamendua aplakatzeko duen balioa interesgarria bada ere, buru kalteak eta gorreriak konpontzeko diru gehiegi xahutzen dutela. Eta kanpaina luze, errepikakor eta plasta hasiko dute puzkerrak ere zaratarik gabe bota ditzagun.

Humanoak txoropitoak garelako gertatzen dira kontu hauek. Gure agintariak ere oso humanoak izan eta beldurrez bizi ohi dira euren publikoak *buuu* egingo ote dien. Horregatik oraindik kulunkatu egiten dira zaratan.

Hurrengo berraragiztatzean ez dut humanoa izan nahi. Igeldoko igela nahiago. ■

Mintzatu



Itxaro Borda
IDAZLEA

Ez hain aspaldi *Berrian* agertu da, argazki gaurkotu batekin, Jose Goitia herritarrak gidatu Joseba Sarrionandiaren elkarriketa, zinez interesgarria, bereziki erakunde armatuak duela hogeit urte bere ekina utzi beharko zuela eta denentzat hobe zatekeela zioen unea. Orduan ez zuen deus erran, alabaina, etsaien diskurtsoa errepikatu eta gaztigu bikoitza pairatu nahi ez zuelako. Ulertzeko dena: heroismoak mugak baditu.

Mintzatu izan balitz, alta, ziur aski errailetan nabarituko zuen beldurraz harago, Frantzia eta Espainia baino, euskal herritar arruntak sosegatuko eta lagunduko zituen: berunezko garai haien

minean euskaltasunaz dudatzeraino lerratu ziren euskaldun-ETAdun identifikazioa batzuetan zaila zelako garraiatzeko.

Guretzat, imperfektuok, lotsatiok, etsaiarekiko harreman intzestu-egilean higituok, piztiaren ideologiarekiko zilborraren moztea esperientzia eraldatzailea suertatu zen eta mintzatu izan balitz, agian, bide horretan elkartuko ginen, idazteaz gain, Euskal Herri ez-endogamiko baten alde pataskatzen, mozkor zenbait hartzen eta Zea Mays entzunez arraiki dantzatzen.

Baina egia, damuek ez dute balio: ez zen ezer gertatu. ■

Administrazioa euskalduntzen

BARRASKILOAREN ABIADURA ULERTZEKO AZTARNAK

Herri administrazioak euskalduntzeak bi gauza esan nahi ditu, bata herritarrei zerbitzua euskaraz bermatzea, eta bestea, administrazio horietan lan hizkuntza euskara izatea. Bi alorretan dago bide luzea egiteko. Euskalduntzea bideratzeko neurriak hartuta daude, Eusko Jaurlaritzaren ustez egokiak dira, euskalgintzak berriz dio motelegi goazela. Abiadura apala izatea eragiten duten hainbat gako aztertu ditugu erreportaje honetan. Eusko Jaurlaritzak duela hilabete batzuk aurkeztu duen hizkuntza eskakizunen asignazio sistema berrikusteko proposamena ere azalduko dugu.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

“Noiz euskaldunduko da administrazioa?”, galdetu zuen Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak, Euskal Herriko hiru administrazioetako hizkuntza politikak aztertu zituen 2010eko txostenean. “Noiz?” galdetzen zuen, helmuga orokorrik ez dagoelako zehaztuta, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika-rako Sailburuordetzak (HPS) ez duelako ezarrita noraino heldu nahi duen euskalduntzean.

Bost urteko plangintzaldiak egiten dira, 2017 amaitu arte izango dena bosgarrena da. Plangintzaldiaren erdibidean eta amaieran, ezarritako helburuak zein neurritan bete diren ebaluatzen da. Euskalgintzako hainbat sektorek behin baino gehiagotan adierazi du hori ez dela administrazioaren euskalduntzea neurtzeko bidea, ez duela balio, helmuga nagusirik jarri gabe, tartekako ebaluaketetan gelditzeak.

Ebaluaketa horien arabera, emaitzak beti dira positiboak, beti da administrazioa aurreko bizpahiru urteetan baino euskaldunagoa, euskalduntzeko tarte handia du. HPSk dio progresibotasunez euskaldundu behar dela herri administrazioa, haren erritmoa motelegia dela diotenek ez dute ukatzen pausoka-pausoka joatea, baina ez dute uste zentzurik duenik helmuga non dagoen ez jakiteak. Orain goazen erritmoan, EAEko herritar guztiei zerbitzua euskaraz eskaintzea lortu ahal izateko ehun bat urte beharko lirake.

Administrazioa euskalduntzea eragozten duten zortzi gako

Gehiago ere badira, jakina, ezin da halako prozesu konplexua zortzi argazkitan laburtu. Ondoko lerroetan bildu ditugun administrazioa euskalduntzeko oinarri nagusietakoa den hizkuntza es-



kakizunen asignazio sistemarekin eta derrigorrezko datarekin dute zerikusia. Derrigorrezko datak adierazten du halako lanpostuk hizkuntza eskakizuna noizko egiaztatu behar duen, beti ez baita derrigorra langileak lanpostua lortzerako hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea, lanean ari dela egiaztatu dezake behar duen euskara maila. Euskalgintzak urte luzez mahai gainean jarri ditu sistema horri buruzko kritikak. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak horietako batzuekin bat egiten du, gero ikusiko dugun moduan. Ondoren, zortzi argazkitan, erradiografia kritikoa azalduko dugu:

1. Sestaoko eta Ondarroako herritarrek ez dituzte eskubide berak

Teorian bai, baina praktikan ez. Esate baterako, herri bateko eta besteko bizilagunek udalarengandik zerbitzua



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

euskaraz jasotzeko eskubidea daukate, baina Ondarroakoak, proportzioan, aukera gehiago ditu euskaraz artatua izateko, Sestaokoak baino. Zergatik? Bada, hizkuntza eskakizunak egiaztatu behar dituzten lanpostuen kopuruak herri horretako datu soziolinguistikoen arabera kalkulatzen direlako, alegia, euskara dakitenen kopurua gehi ia euskaldunen erdia hartzen da kontuan. Herria zenbat eta euskaldunago, administrazioan are langile gehiagori eskatuko zaie euskara mailaren bat.

2. Lanpostuen %44k ez dauka hizkuntza eskakizunaren beharrik

Lanpostu guztiek ezarria dute zein hizkuntza eskakizun (1, 2, 3 edo 4.a) dagokien, baina horrek ez du esan nahi denek egiaztagiria behar dutenik. Langileen %56k lanpostua lortzeko edo lanpostuan hasi eta denbora jakin ba-

tera derrigor egiaztatu behar du dagoen hizkuntza eskakizuna. Langileak hizkuntza maila lortzen ez badu litekeena da lekualdaketak edo lan aldaketak izatea, baina ez du lanpostua galduko. Egiaztagiria izatea derrigorra ez denean merezimenduzkoa da euskara jakitea.

3. Etxeko laguntzaileak 1. hizkuntza eskakizuna?

Lanpostuak dituen funtzio komunikatiboak eta lanpostu horretarako eskatu den euskara maila sarri ez datoz bat. Adibidez, atezainak edo etxeko laguntzaileak 1. hizkuntza eskakizuna du ezarrita. Agian, idatziz ez du maila goragorik behar, baina jakina da hizkuntza eskakizun horrekin euskaraz hitz egiteko gaitasunik ez duela. Batzuetan lanpostuak euskara maila hobea beharko lukeela ondorioztatzen da, eta beste batzuetan maila baxuago bat nahikoa dela.

Argazkia 2015ekoa da, Eusko Jaurlaritzak Osakidetzarako deitutako lan eskaintza publikoko azterketa eguneko.

4. Langile euskaldunak bai, baina euskaraz ari al dira lanean?

Administrazioako langile asko lanpostua lortu eta gero euskaldundu dira. Euskaltegian orduak eta orduak eman dituzte. Administrazioak hartu du horiek euskalduntzeko lana (hori ere bada beste kritika bat: zergatik ez dira zuzenean hizkuntza eskakizuna duten langileak kontratatzen, gero euskalduntzen ibili beharrean?). Langileak euskalduna izateak ordea ez du bermatu euskaraz lan egitea. Langileok lan giro eta lan zirkuitu erdaldunak aurkitu dituzte, sarri gatzelaniaz egin dute ahoz eta idatziz. Ikasitako euskara ez dute praktikan ja-

rri. Euskalgintzaren galdera errepikatuenetako bat da hau: Zertarako balio du langileak euskalduntzea, gaztelaniaz idatzi eta hitz egingo badute lantokian?

5. 45 urtetik gorakoak salbuetsita daude

Adina da irizpidea. 45 urtetik gorakoek ez daukate inolako hizkuntza eskakizunik egiaztatu beharrik. 45 urte baino gehiago dituen langileak lortu duen postuak hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko data iraungita balu, langile horrek ezin izanen luke postua eskuratu. Iraungi gabe balu eta egiaztatze data bitartean 45 urte beteko balitu, salbuetsita gertuko litzateke. 23. orrialdean dagoen infografian ikusiko duzuen bezala, euskara mailaren bat egiaztatzea derrigorrezkoa duten lanpostuen %78, hau da, 23.439 lanpostutatik 1.718 salbuetsita daude.

6. Plaza duenak beste lanpostu batera alde egin badu?

Eman dezagun lanpostu batek derrigorra duela hizkuntza eskakizunen bat. Langileak egiaztatua du titulu hori. Behin-behinean orde, lanpostua utzi du. Bada, haren orde etorri den langileak, ordezkia denez, ez dauka aurreko lankidearen hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharrik. Langileak eskubidea du lanpostua behin-behinean uzteko, baina horrela herritarren eskubideak urra daitezke, langile berria erdalduna izan daitekeelako.

7. Ez da gauza bera zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza

Gauza bat da udalek, foru aldundiek, Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarrak... herritarrek euskaraz artatzeko gaitasuna izatea, eta beste bat, erakun-

de horiek guztiek etxe barruan, idatziz eta ahoz zein hizkuntzatan egiten duten lan. Zerbitzu hizkuntzan zuloak daude oraindik, eta lan hizkuntzan are zulo gehiago. Parekatzea ezinezkoa bada ere, hona adibide bat: herritarrek ahozko harremana euskaraz eskatutakoan %78,7ri hala erantzuteko gaitasuna du administrazioak. Aldiz, administrazioetako lantokietako lan bilerak hartzen baditugu kontuan, bileren %51,3 da euskaraz.

8. Eta ordezkari politikoek ez badakite euskaraz?

Ez baitute derrigorrez euskara jakin behar ordezkari politikoek. Borondatearen arabera da hizkuntzarena. Haiek harreman zuzenak dituzte herri administrazioekin, ahozkoak eta idatzizkoak. Euskaraz ez badakite, hizkuntza horretan harremanak asko zailtzen dira. ARGIA ordezkari politikoen hizkuntza gaitasunez argitaratu genuen artikuluan (2.485. zbk. 2015-11-29), 2012tik 2016ra arteko Legebiltzarreko ordezkarien hizkuntza gaitasunaz hitz egin genuen. 75 legebiltzarkideetatik 25ek ez zekiten euskaraz eta 11k erdizka.

» Zergatik ez dira hizkuntza eskakizuna duten langileak kontratatzen, gero euskalduntzen ibili beharrean?

Zer proposatu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza?

Hizkuntza eskakizunen esleipenerako irizpideak bateratzeko eta baloratzeko proposamena egin du HPSk eta 2017an luzatuko da gaiari buruzko go-goeta HAKOBAn (Eusko Jaurlaritza, hiru foru aldundiak, hiru hiriburuetako udalak, EUDEL eta UEMA). Zer esan nahi du horrek? HPSk dio lanpostuaren eta ezarritako hizkuntza mailaren artean disfuntzioak edo inkoherentziak sortu direla urteen poderioz. Funtzio komunikatibo bertsuko lanpostuetan hizkuntza eskakizun desberdinak aurki daitezke gaur egun. Patxi Baztarrika HPSko orain arteko sailburuordeak emandako pare bat adibide erabiliko ditugu egoera hobeto ulertzeko: unibertsitate irakaslea eta administrari laguntzailea, biak, 3. hizkuntza eskakizunarekin aurki daitezke edo lanpostu berean hiru hizkuntza eskakizun (lanpostuaren eta hizkuntza eskakizunaren arteko lotura administrazioak berak egiten du. Alegia, udal batek lanpostu bati hizkuntza eskakizun bat ezar diezaioke eta alboko udalak lanpostu berari beste bat).

Esleipenak berrantolatzeke herri administrazioetako lanpostuak 42 multzotan bildu dituzte, haien funtzio komunikatibo nagusien arabera (hamaika administrazio aztertu dituzte, besteak beste, EAEko administrazio orokorra, udalak, foru aldundiak, EHU, eusko legebiltzarra eta Arartekoa). Funtzio komunikatibo horiek oinarrian hartuta proposamen bat egin du HPSk. Proposamen horren arabera, administrazioako lanpostu bat betetzeko edo lanpostu horretan jarduteko eskatzen den gutxieneko euskara gaitasuna izango da lanpostu horretarako eskatzen den formazio

Liburu azoka

Hondarribian, abenduaren 15etik 18ra Arrantzale auzoan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

EUSKALDUNTZEA HERRI ADMINISTRATIOETAN (2015)

ERABILERA HERRITARREKIN

Euskararen idatzizko erabilera arreta eta jendaurreko zerbitzuetan

OROKORREAN:  EUSKO JAURLARITZAN: **EUSKARAZ** %10,7

Euskararen ahozko erabilera arreta eta jendaurreko zerbitzuetan

HARREMANA HARRERAN (LEHEN HITZA)

OROKORREAN:  EUSKO JAURLARITZAN: **EUSKARAZ** %54,1

HARREMANA ELKARRIZKETETAN (HERRITARRAK EUSKARAZ NAHI DUELA ADIERAZI DUENEAN)

OROKORREAN:  EUSKO JAURLARITZAN: **EUSKARAZ** %76,2

ERABILERA LANGILEEN ARTEAN

Euskaraz sortzen den dokumentazioaren indizea (herritarren eskubidea bermatzeko itzulpena egiten da)

OROKORREAN:  EUSKO JAURLARITZAN: **EUSKARAZ** %20,3

Lan bileretako ahozko erabilera


OROKORREAN:  EUSKO JAURLARITZAN: **EUSKARAZ** %23,5

Lan bileretako idatzizko erabilera


OROKORREAN:  EUSKO JAURLARITZAN: **EUSKARAZ** %45,5



HIZKUNTZA ESKAKIZUNA IZATEKO DERRIGORREZKO DATA DUTEN LANPOSTUAK (23.439 GUZTIRA)



HIZKUNTZA ESKAKIZUNA IZATEKO DERRIGORTASUN DATARIK EZ DUTEN LANPOSTUAK (14.105 GUZTIRA)



Iturria: Euskararen erabilaren normalizazioa herri administrazioetan. V. plangintzaldiko (2013-2017) tarteko ebaluazio txostena. 2016ko maiatza.

akademikoa euskaraz osorik edo zati handiengan egiteagatik aitortzen den euskara gaitasun bera. Beste modu batez esanda, Zuzenbidea euskaraz ikasi duen herritarrari C1 (3. HE) maila aitortzen bazaio, administrazioan C1 eskatuko litzaioke. Irizpide nagusia litzateke, zeren lanpostuaren funtzio komunikatiboen arabera 4. hizkuntza eskakizuna ere eska dakioke, adibidez, langile hori epaitegietako auzibideetako abokatua bada, trebetasun handiagoa beharko bailuke ahoz eta idatziz.

Goragoko titulua baino, praktika gehiago

Eragozpenen zerrendan aipatu dugu, sarri esan dela euskara titulua duenak lanpostuan euskara erabiltzeko gaitasunik duenik ez duela esan nahi, are gutxiago lantokian trebatzeko aukerarik ez badu, lanean gaztelaniaz egiten delako. HPSren proposamenean aitortzen da lanean euskaraz aritzeko gaitasuna beti ez dela konpontzen hizkuntza eskakizun altuagoa eskatuta. Hots, 3.aren ordez 4.a eskatzea ez da beti irtenbidea. Zein da beraz HPSren proposamena? Bada, hiz-

kuntza prestakuntzan eragitea, alegia, langileak haien zereginetarako bereziki prestatzea. HPSren ustez, hizkuntza erabiliz ikasten da eta trebatzen da.

Atezainak zenbat euskara jakin behar du idatziz, eta zenbat ahoz?

Eta aguazilak, begiraleak, etxeko laguntzaileak? HPSk egiten duen hausnarketaren arabera, aukera bat izan daiteke lanpostu batzuetarako hizkuntza eskakizun bateko trebetasun batzuk (irakurmena, idazmena, entzumena eta

mintzamina dira lau trebetasunak) eta beste hizkuntza eskakizun bateko trebetasunak eskatzea. Dantza irakaslearen adibidea jartzen du. Agian, ahoz 3. HE behar du eta idatziz nahikoa du 2. HE. Atezainari berriz, beharbada, 2. HE eskatu behar zaio mintzamenen eta idazmenen nahikoa du 1. HE.

Eztabaidarako proposamena mahai gainean du Eusko Jaurlaritzak. Hizkuntza eskakizunen asignaziorako irizpideak baloratzea, bateratzea eta finkatzea da helburua. Asignazio sistema administrazioa euskalduntzeko oinarri garrantzitsuenetakotzat du HPSk. Alabaina, berrikusketa prozesu horretan ez dira hausnartuko erreportaje honetan aipatu diren beste hainbat alor, hala nola, ea derrigor hizkuntza eskakizuna behar duten lanpostu kopurua gehitu behar den ala ez, alegia, indize soziolinguistikoen arabera hizkuntza eskakizun egiaztatze kopuruak aldatuko diren ala ez. Eta ez da hitz egingo hizkuntza eskakizuna lortzeaz salbuetsita dauden 45 urtetik gorakoez, edo salbuespenik gabe inolako euskara egiaztagiriren beharrik ez duten ordezkari politikoez. ■

» HPSk dio lanpostuaren eta ezarritako hizkuntza mailaren artean disfuntzioak edo inkoherentziak sortu direla urteen poderioz

Europa erakusten digutena baino askoz ere anitzagoa eta ederragoa da

EUROPAKO HERRIEN MAPA EUSKARAZ

Mundua ulertzeko beste begirada bat, ARGIAren eskutik.

 **ARGIA**

Egin ezazu eskaera:

© 943 371 545 | www.argia.eus/denda | denda@argia.eus



15€

bidalketa barne
Euskal Herrian

Neurria: 84,1 x 59,4 cm

Etxe, eskola eta elkarteetarako opari aproposa

Ikusmen urritasuna

“TRABA NAGUSIA EZ DA IKUSMEN ARAZOA, GIZARTERATZEKO JARTZEN ZAIZKIGUN OZTOPOAK BAIZIK”

Mundua hautemateko moduak pertsona bakoitzaren arabera dira. Esparru guztietara iristeko aukera berdina al ditugu, ordea? Ikusmenean aniztasun funtzionala duten hainbat lagunek errealitatea nola sumatzen duten kontatu digute, egunerokoan dituzten zailtasunak ardatz.



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
@xorginkeiak

Itsuen edo ikusmen urritasuna duten pertsonen inklusioa sustatzen dute Gipuzkoako Begiris, Bizkaiko Aukera Berriak eta Arabako Itxaropena elkarteek. Gasteizen, Bilbon eta Donostian batzartu dira egunotan, arazoak detektatu, informazioa bildu, eztabaidatu eta proposamenak plazaratu aldera, hirietako irisgarritasuna oinarri hartuta.

Irisgarritasuna eta enplegua

Historikoki, ikusmen disfuntzioa duen pertsona kupoi-saltzaile aritu da lanean ONCEn. %90ak hori izan du ogibide. Horretan jarduteko aukerak murrizten ari direla kontatu digute, ordea, elkarrizketatuek: “Kupoiak beherakada jasan du eta ez dago bestelako alternatibarik”, dio Aukera Berriak elkarteak Manu Agirrek. ONCEko EAEko ordezkari Juan Carlos Anduezak jokoaren kompetentzia aipatu du aldaketen zio bezala: “Lehiakortasun handikoa eta dinamikoa da jokoaren sektorea; horregatik, gure bezeroei begira, etengabe egokitzen dugu”.

Espainiako Estatuan 20.000 pertsona dira kupoi-saltzaile gaur egun, Anduezak adierazi digunez. Horietatik ikusmen urritasuna dutenak %7 inguru direla azaldu digu Begiris elkarteak Joxean Txintxurretak. Gaur egun beste mota ba-

teko aniztasun funtzionala duen jendea ere lanean ari dela dio, baita elbarritasunik gabeko zenbait ere “Mugikortasuna bilatzen da, elbarritasun txikia duen pertsona mugituaren perfila. Itsuek gero eta leku txikiagoa daukagu”. Era berean, ONCEn lanean aritzeko aukera duenak, lan baldintza “kaskarretan” egin behar duela adierazi digute: “Lan irizpideak ere aldatzen ari dira: behin behineko kontratuak, oinarrizko soldataren %70a kobratzea, produktibitateari lotutakoa...”, dio Aukera Berriak-eko Agirrek.

Bizitzaren sostengurako eta norberaren autonomiarako enplegua tresna garrantzitsua dela esan digute, gehituta Euskal Herrian lan egiteko aukera “eskasa” dagoela. “Enpleguaren sektoretik aparte geratzen garenok arazoak ditugu gizarteratze txukuna izateko”. Agirre eta Txintxurreta kupoiak saltzen ibilitakoak dira. Biak erretiratuak. Urtebeteko lanagatik urte eta erdiko kotizazioa lortu dutela kontatu digu Agirrek, Gizarte Segurantzako Araudian egondako aldaketaren harira. Horregatik erretiroa. “Lanpostuetan murrizketak egiteko trinkailu” bezala deskribatu du.

“ONCE aski ezaguna da pertsona desgaituei zuzendutako enplegua sortu eta sustatzeagatik”, esan du Anduezak. “Kri-

si garaian gure konpromiso sozialari aurre hartu eta pertsona desgaituentzako enpleguaren formazio eta sorkuntza egitasmoa sortu genuen”. Txintxurretak bestelakoa dio, baina: “ONCEk urte onak izan ditu, dirua mugitu du eta bide berriak bilatu eta sortzeko aukerak eduki ditu. Krisia dela eta, ekintzak mugatu ditu eta aukerak agortu zaizkio. Hartara, egoera “ilun” batean irudikatu dute enplegua Agirre eta Txintxurretak.

Urritasun mota hau dutenak kupoiak saltzera mugatu diren arren, gaitasun gehiago dituztela gaineratu dute: “Hiruzpalau fisioterapeuta daude Gipuzkoan eta sei-zazpi Bizkaian”, azaldu digu Txintxurretak. Bestalde, telefoniarekin lotutako lanpostuak ere galdu egin dira. “Orain makinak dira lan hori egiten dutenak”, dio Agirrek.

Pertsona hauek lanean ikusi dituenak, ONCEn ikusiko zituen ziurrenik. Txintxurretaren hitzetan, horrek deskonfiantza eragiten dio langileak kontratatu nahi dituenari: “Ez gaituzte ezagutzen, ez gaituzte lanean ikusi. Lan munduan ez gara inor ONCEtik kanpora. Ezjakintasunagatik edota deskonfiantzagatik ez gaituzte nahi. Enpresa publikoek eman behar lukete lehen pausoa, lehen arduradunak dira”.

Administrazio publikoen esku hartzea

Administrazioek, betidanik, arazo hau ONCeren esku utzi dutela adierazi dute Txintxurretak eta Agirrek, eta lanean integratu ahal izateko beharrezkoa dela haien esku-hartzea. “Herri administrazioek ez dute honi buruz azterketarik egin, ezta irtenbiderik planteatu ere. Egoerari beste modu batean heldu behar zaio, arazoa mahai gainean jarri eta ardurak hartu. Iritsi da ardura publikoa hartzeko unea”. Lehen pertsonan bizi dituzten mugak txosten batean bildu eta administrazioekin harremanetan jarri dira.

Pasa den ekainean Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Zerbitzu Sozialeko kontseilari Lide Amilibiarekin bildu ziren hiru elkarteetako ordezkariak. Egoera zein den ezagutarazi zioten lehenik, ez baitzuen “aski ongi” ezagutzen. “Lanbide aipatu ziguten, ezgaituentzat aukerak ematen dituztelako. Baina ez zekiten han ere gutxi direla ikusmen urritasuna duginontzako aukerak. Batzuetan oposizioak egin ondoren esan digute lan horretarako ez dugula balio. Denak zaku berean sartzen gaituzte eta ez dakite zeintzuk diren bakoitzaren beharrak”, aipatu du Txintxurretak. Egoera aldatzeko lan egiteko “beharra” azpimarratu eta hau guztia ikusarazten eta kontzientzia pizten ari direla nabarmendu digute.

Horretarako datuak eskatu dizkiote Jaurlaritzari: Erkidegoan dagoen itsu kopurua, egin dituzten ikasketak, zein lanetan ari diren eta zein lan eskaera dagoen eta abar. “Ikuspuntu errealista batetik abiatu behar gara, zer eta nola planteatu jakin ahal izateko. Zertaz ari garen jakin behar dugu”, diosku Txintxurretak.

Gizarte aurrerakoia hankamotz

“Espazio publikoa ez dago herritar guztiontzat eskuragarri”, dio Agirrek. Hirietan aldaketak ematen dira, baina irizpide batzuk ez direla kontuan hartzen salatu dute eta horrek haien autonomia murrizten duela. Hartara, egunerokoan jasaten dituzten oztopoak bildu eta horiei aurre egiteko neurriak proposatu dituzte:

“Donostiako Egia auzoan egin berri duten autobus geltokiko diseinuan plan bat egiten aritu gara Udalarekin. Elbarritasun fisikoak kontuan hartu zituz-



Garraio publikoari dagokionez zer hobetu asko dago oraindik. Zerbitzu ugari ez dute soinu-sistemarik, eta daukaten horien artean ere badira gabeziak, zarata desatsegina ateratzen duten megafonoak, kasu.

» M. AGIRRE, AUKERA BERRIAK:

“Kupoi salmentak beherakada jasan du eta ez dago bestelako alternatibarik”

» C. ANDUEZA (ONCE):

“Teknologia berriak ez dira irisgarriak, baina abantailak ere badituzte: mugikorrarekin ONCeren liburutegira sar naiteke, ahots-sistema bidezko programak daude...”

» J. TXINTXURRETA:

“Lan munduan ez gara inor ONCEtik kanpora. Ez gaituzte ezagutzen, deskonfiantzaz hartzen gaituzte. Ezjakintasun horrek bultzatuta ez gaituzte eurenean nahi”

ten aurrez, baina guretzat ez zegoen orientazio seinalerik. Gauza batzuk falta arren, nahiko txukun geratuko da”, esan digu Txintxurretak.

“Bilboko zenbait autobusek megafonia erabiltzen dute informazioa helarazteko. Batzuen soinu-sistemak baldintza kaskarrean daude, zarata desatsegina ateratzen dute eta horrek jendea kontra jartzen du. Beste batzuek gutxieneko hori ere ez daukate”, dio Agirrek: “Megafonoak aktibatzekeko aparailu bat behar dugu, ahaztuz gero ezin dugu erabili. Bilbokoa ez bazara, gainera, aparailurik ez duzu izango. Halaber, autobus bat baino gehiago etortzean seinalerik ez dugu jasotzen. Hainbeste muga ez dauzkaten megafoniak eskatzen ditugu”. Metroan, bestalde, tiketa hartzeko hitz egiten duen makinarik ez dago. “Behin tiketa pasata bi noranzko daude, seinalizatu gabekoak. Nahikoa litzateke braillez idatziriko karteltxo bat. Eta kalera irtetea ere arazoak. ‘Plataforma Bakarra’ izendatu duten diseinuarekin ari dira hiria berritzen. Bertan maila berean doaz oinezkoak eta automobila. Espaloirik gabe ez dakigu zein esparrutan gauden eta segurtasuna galtzen dugu. Semaforo batzuek soinua egiten dute, baina beste batzuek oraindik ez.



GUGGENHEIM MUSEOA

Kultur arloan ere zer hobetu badagoela esan digute elkarrizketatuek. Artearen esparruan, esaterako, oso lagungarria da eskulturen alboan haien maketak jartzea, bestela nolakoak diren ere imajinatzerik ez dagoelako, figura handien kasuan bereziki. Argazkian, Bilboko Guggenheim Museoaren kanpoaldean dauden eskulturen maketak.

Ez dakigu zeinen aurrean geratzen garen, geldi egon behar garen, pasa gaitezkeen edota semafororik dagoen ala ez”.

Kulturaz osotasunean gozatu

Kultur aretoak aipatu dituzte Gipuzkoako Begiris taldekoek. “Tabakalera-ko arduradunarekin ari gara lanean. Areto berria da, gorpildun aulkidunak kontuan hartu dituzte egiturak egiteko, baina gu ez”. Kultur programazioari dagokionez, eskaintzarik handiena “ikustekoa” dela nabarmendu dute, gutxi dagoela entzuteko edo ukitzeko. “Eskulturaren munduan adibidez, irudi handiak paratzen badira, nolakoak di-

ren ere ezin dugu imajinatu. Azpialdean maketa txiki bat jarrita, ordea, bai”.

Literatura eta hizkuntzan gozatu edo trebatzeko aukera gutxi dituztela kexatu dira, eta eskaintza berriak ezin dituztela eskuratu: “EAEn liburutegi digitala ere bada; bada, guk ezin dugu kontsultatu. Euskaraz hain garrantzitsua eta esanguratsua den ahozko literaturaz ere apenas goza dezakegun sarean”, gehu da Aukera Berriak elkarteko Agirre.

Eta teknologia? “Aukerak ekar ditzake ongi kudeatzen bada. Baina teknologia berriak ez badira denontzako bideak, hesiak eta oztopoak eraikitzen dira, diskriminazioa eta bazterkeria”, gehitu du.

ONCEko ordezkari Andueza iritzi berekoa da, alegia, gailu berriak ez direla irisgarriak. Abantailak ere aipatu ditu, ordea: “Mugikorrarekin ONCEren liburutegira sar gaitezke. Ordenagailu eta telefono pantailak handitzen dituzten edo ahots sistema duten programez ere balia gaitezke”. Txintxurretak aplikazioen etengabeko aktualizazioa ikusten du oztopo gisa: “Gaur ikasi dugunak bihar ez du balio. Gaur irisgarria dena bihar ez da izango. Etxetresna gehienak digitalak dira orain eta maneiatzeko arazoak ditugu, lehen ez bezala. Bestalde, langileak kontratatzerakoan aitzakia gisa erabiltzen dute teknologiaren erabilera. Denontzat ona dela dirudi baina kontuz, aurrera joateaz gain, atzera ere bagoaz”.

Gaitasunak aktibatzen

Aldaketak poliki-poliki ematen direla aditzera eman duten arren, lanean jarraitzeko indarrez azaldu dira. Oinarrizko eskubideez hitz egiten ari garela adierazi dute behin eta berriz, “ez gutiziez”. Hala nola, ingurura begiratu eta gaia kontuan hartzeko deia luzatu nahi diete herritar zein administrazioei, irtenbideak planteatzen hasteko.

Garai batean hezkuntzan ere inklusioaren arazoa zegoela kontatu digute. Agirrek, esaterako, Pontevedran (Galizia) jaso behar izan zuen hezkuntza berezia. Gaur egun neska-mutikoez euren herrietan ikas dezakete. “Ahalegin hau eskolatik kanpo ere gauza dadin baliabideak bilatu behar ditugu, zubia erdi-bidean ez uzteko”, dio Txintxurretak. “Gizartean oinarrizkoak dira pertsonak eta harremanak. Haiei gaitasunak ukatzea, garatzeko aukerak mugatzea da. Kontu larria da”.

Teresa Cacere ekintzaile soziala

“HERRIAK GUZTIAREN KONTROLA IZATEA LORTU BEHAR DUGU”

Askapenak Gasteizko Hala Bedi tabernan antolatutako “Erresistentzia eta herri boterearen eraikitzea hegoaldeko Europan” mahai ingurua probestu genuen, Teresa Cacere (Je So’ Pazzo kolektiboa) ekintzaile italiarra elkarrizketatzeko. Napoliko errealitate sozial gordinari nola egiten dioten aurre azaldu digu.



Xuban Zubiria Elexpe
@xubanzubiria

Napolik egin zaitu militante. Nola eta zerk eraginda hasi zenuen zure militantzia politikoa?

Nik txikitatik izan dut kontzientzia soziala. Ikasketek eraman naute Napolira. Hango testuinguru soziala oso emankorra da Italiako beste hiriekin alderatuta. Militantzia bizitzeko modu bat da niretzat, naturalki ateratzen zaidan zerbait. Anomalia badirudi ere, Napolin dugun alkatea Luigi Dismitris (Mugimendu Laranja) oso gertu dago gizarte-eragileetatik eta horrek asko lagundu du zentro sozial askoren garapenean eta gazteen parte hartzea handitzen.

Je So’ Pazzo kolektiboaren parte zara. Zer eskaintzen dio zuen proiektuak Napoliko hiriari?

Gure proiektua 2015ko martxoan hasi zen hiriaren erdialdeko eraikin bat okupatu ostean. Lan asko egin eta gero, hainbat dinamika martxan jartzea lortu dugu, tartean “herri anbulategia” deitzen dioguna. Italian osasungintza publikoa bada ere, ez da herriaren beharrak asebetetzeko gai eta arazo horri erantzuteko sortu genuen proiektu berriak hau. Hainbat medikuren kolaborazioari esker, astean behin kon-

tsultak, ekografiak egiteko aukera eta osasun laguntza eskaintzen ditugu gune okupatuan. Proiektuaren arrakasta ezin dugu ezkutatu eta Napoliko ospitale edo osasun zentroetara joan ezin dutenekin harreman zuzena sustatzea lortu dugu. Auzoetan dagoen bazterketa gutxitzen ari garela esan nezake.

Bigarren proiektu nagusiak Italian oso errotua dauden lan baldintza eskasaren tradizioa eta prekaritatea desagerraraztea du helburu. Horretarako Lanaren Herri Ganbera “*Camera Popolare del Lavoro*” jarri dugu martxan. Mugimendu horren funtsa langile guztien eskubideen defentsa egitea da, batez ere beltzean lan egin eta ia eskubiderik ez duten langileei babesa eskaintzea. Napolin lan duinaren aldeko defentsa sareak eratu nahi ditugu, langile guztien borroka oinarri hartuta.

Testuinguru horretan zein da Camorra-ren rola?

Camorra tragedia hutsa da Napolirentzat. Arazo kronikoa da eta zoritxarrez oraindik mafiaren sareak oso indartsuak dira Napolin. Guk mafiaren aurkako mugimendu bezala, uste dugu bere aurka egiteko daukagun armarik indartsuena hezkuntza dela eta auzoetako txikientzat aisialdi eskaintza oparo bat garatzen saiatzen gara. Auzo pobreenetan kirola edo jolasen bitartez gazteen inklusio soziala indartzen dugu,

Camorra-tik ahalik eta urrutien bizi eta hezi daitezten.

Krisi latz honek Europa hegoaldeko herrialdeetan aktore politiko berriak (Poderamos, Syriza, CUP) sortu eta indartu ditu: Italian zein da egoera?

Je So’ Pazzo proiektuaren parte naizen aldetik, gure helburua beti izan da jakintza eta borroka sozial guztiak batu eta maila nazionalen federatzea. Alderdi politikoen gaintik eragin nahi dugu. Herritarren arazoei, maila lokal eta nazionalen, erantzuna emateko egiturak sortzen dihardugu. Guzti honen adibide nagusia da Lanaren Herri Ganberarekin egin duguna. Erakundea Italiako beste hirietara zabaltzen ari da eta batzuetan oso indartsu ezarrita dago jada. Elkarlanean oinarritutako borrokek emaitza handiagoa ekartzen dutela pentsatzen dut. Italiar askoren moduan ni ez nau inongo alderdi politikok ordezkatzeko, ez naiz horietako inon identifikatua sentitzen, baina hau ez da sekula arazo bat izan nire jardun militantea aurrera eramateko.

Matteo Renzi bultzatutako konstituzio erreformaren inguruan erabakia hartu beharko dute italiarrek hilabete barru. Ze irakurketa egiten duzu erreferendumaz? Erreferendumaren aurrean Italiako milaka erakunde sozialek agertu duten iritzia berbera dut. Renzi eta PD alderdiak

erreforma hau bultzatu dute, gaurdanik Italian oso murriztak diren erabaki guneak oraindik gehiago murriztu eta boterea gutxi batzuen esku uzteko. Gure politika herria ahalduntzea eta apurka-apurka erabaki propioak hartzeko ahalmena edukitzea da Italiaren etorkizuna hobetu dadin. Uste dut gure proposamena eta Gobernuarena kontrako norantzan doazela.

Herritarrak ahaldundu esan duzu? Zein da formula?

Arlo honetan Italian ere ez dugu errezeta magikorik. Nire ustez lehen pausoa da gure jardun militanteen herritarren ahalduntzeak behar duen lekuari garrantzia ematea. Ahalduntzea *"controllo polulare"* edo Herri Kontrola deitzen diogun filosofiaren barruan kokatzen dugu. Herri kontrolaz hitz egitean, herritarrek politizatzea ezinbestekoa dela esaten ari gara. Herritarrak populismo xenofobotik aldentzeaz ari gara eta Italia hegoaldeko ustelkeria jarduera endogamikoetatik herritarrek urruntzeaz ari gara. Finean, herriak guztiaren kontrola izatea lortu behar dugu.

Bide horretan iniziatiba asko jarri ditugu martxan, kultur ikuskizunak, mobilizazioak eta baita Italia hegoaldean oso agerikoak diren boto erosketen aurkako kanpainak ere.

Europako leku askotara olatu xenofobo berri bat heldu da. Zein da egoera Napoli eta Italia hegoaldean?

Ultraeskuineko mugimendu populisten aurkako borroka ez da oraingoa Napoli. Oso hiri anitza izan da bere sorreratik eta milaka kultura elkarrekin bizi izan dira. Arrazakeria eta xenofobiari aurre egiteko beti egon da herri giha-



rra Napolin. Gaur egun ere era askotako mugimendu sozialen eguneroko lanak hor dirau eta desberdinaren aurkako mezua zentralitate politikotik urruntzen jarraitzen dugu. Errefuxiatuen krisiak ekarri duen krisi humanitarioaren inguruan kontzientzia sortzeko proiektu asko jarri ditugu martxan. ■

Goian, Teresa Cacere, ezkerrean Curro Moreno (SAT) eta Bruno Carvalho ekintzaile portugaldarrarekin batera. Askapenak eta Ipar Hegoa Fundazioak antolaturiko formakuntza jardunaldiaren parte hartu zuten. Behean, 2015eko martxoan eratu zen Je So' Pazzo gune autogestionatua. Herri Anbulatorioa edo Langileen Herri Ganbera bezalako dinamika apurtzaileak sortu dituzte handik.

ARGIA 2017ko egutegia

Hormak edukiz janzteko.

© 943 371 545 · www.argia.eus/denda · denda@argia.eus

Egutegia

9€

Egurrezko
taula
egutegia
opari

50€



ARGINDARRA MERKANTZIA HUTS?

Reusen (Katalunia) amona bat hil izanak, argiztatzeko erabiltzen zuen kandelarekin etxeak su hartu ondoren, alarma guztiak piztu ditu pobrezia energetikoaren inguruan. Euskal Herrian nola gaude? Konpainia elektrikoek udalekin eta erakundeekin hitzarmenak sinatu dituzte lehen kolpean argindarra ez mozteko, baina askorentzat ez da nahikoa, zorra kitatzen segitzen dutelako administrazio publikoaren kontura. Petatxuak baino gehiago behar da egoerari aurre egiteko.



Marijo Deogracias Horrillo
@desplazatua

Argiaren erreziboa ez ordaintzeagatik argi mozketatik babesten ditu Iberdrolak bere bezero ia guztiak, %99. Urriaren 20an Iberdrolak bidalitako prentsa-oharraren izenburua da. Erakunde publikoekin eta jendea artatzeaz arduratzen den 3. sektorearekin sinatutako akordioei erreferentzia eginez, Euskal Herrian nagusi den argindar konpainiak dio bermatu egiten duela egoera zaurgarrian dauden bere bezeroek argindarra izaten segitzea, “Taldearen Gizartearekiko Ardura politika orokorrek bat etorritik”. Baina zer gutxiago, ezta? “Kontuan izanik pribatizatutako zerbitzu publikoa kudeatzen duela” eta familiek ordaindu ezin duten dirua bestela ere jasotzen segitzen duela: aurrekontu publikoei esker. Azpimarra Los Martes al Sol Nafarroako komitekoek egin digute. Nafarroan 96.000 lagun daude pobrezia energetikoa jasateko arriskuan; EAEn, 2014an, 235.526 lagunek arazoak izan zituzten hilabete hotzetan etxea tenperatura egokian mantentzeko.

Bilboko Udalak 2015eko urrian sinatu zuen hitzarmena; Gasteizkoak, urte bereko azaroan; Donostiako Udalak aurtengo ekainean eta abuztuan, berriaz, Irungoak. Hitzarmen guztien helburua da argindarra ordaintzeko zailtasun ekonomikoak dituzten herritarrei argia ez moztea. Nafarroan gobernuak sinatu du argindar konpainia nagusiarekin: “Bezeroak ordaintzerik ezin duenean, konpainiak zerbitzua eskaintzen segituko du, erakundeek ordaindu bako fakturen zorrak kitatzeko emergentziazko planak kudeatzen dituzten bitartean”. Energia enpresekin sinatu diren hitzarmen guztiek diote gauza bera: pobrezia energetikoari erantzun nahi diete. Soluzio egokia dirudi, lehentasunezkoa etxean bizi direnen bizi-baldintzak era duinean bermatzea baita. Baina, familien egoera ekonomiko geroz eta kaskarragoek petatxuak baino gehiago behar dituzte. “Soluzioa ezin da izan erakunde publikoek beregain hartzea jendearen zorra; energia eskubidea da”, Los Martes al Sol kolektibokoek argi daukate.



Natalia Rojo PSE-EEko legebiltzarkideak ere ondo ezagutzen du pobrezia energetikoaren gaia: aurreko lege-gintzaldian 25 ekimen parlamentario aurkeztu zituen Eusko Legebiltzarrean. Ibilian-ibilian, 2014ko osoko bilkuran adostea lortu zuten Eusko Jaurlaritzari eskatzea behar diren neurriak ezarri zitzala, “saihesteko ezein pertsonari moztu ahal izatea argiaren, uraren edo gasaren hornidura, pertsona horrek frogatzen badu fakturak ezin ordaindu ditzakeela, batez ere eskaera handia dagoen garaietan”.

Akordio hari esker, 2015ean 200.000 euro jarri zituen Jaurlaritzak pobrezia energetikoan zeuden pertsonei laguntzeko; 2016ko aurrekontuetan 400.000 eurora igo zuen diru-partida. “Hasieratik exijitu genuen partida hori ezin zela Larrialdietarako Gizarte Laguntzen edo Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren parte izan”, dio Rojok: “Argia edo ura ordaintzeko arazo ekonomikoak dituzten familia asko ez dago gizarte laguntzen sisteman sartuta; asko soldata baxua



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

duten familiak dira eta, beraz, ez daukate laguntza sozialak jasotzeko esku-biderik, argia edo ura ordaintzeko diru nahikorik izan ez arren". Hala, laguntza zehatz hori kudeatzeko 3. sektorerara jotzea adostu zuten eta Gurutze Gorriak koordinatzen ditu: "Argi ikusi genuen udalek ezin zutela beregain hartu, bestela ere nahikoa gainezka daudelako oinarritzko gizarte laguntzaileak eta, gainera, premia hori daukaten pertsonak ez daude eurek darabilten laguntza sistemen datu basean".

Gurutze Gorriak jarraipena egiten die laguntza-jasotzaileei eta konpromisoa sinarazten die eskatzaileei "kontsumo-ohiturak aldatzeko taldekako formakuntza saioetan parte har dezaten eta bestelako laguntza-bideak ere eskainiz", azaldu digu Euskadiko Gurutzeko Gorriko koordinadore Aitor Allendek. Berak eman dizkigu EAeri dagozkion datuak: 2015ean 427 familia artatu zituzten; 2016an, dagoeneko, 1.341 familiei lagundu diete argirik gabe gera ez daitezen (Bizkaian, 599; Gipuzkoan,

Los Martes al Sol kolektiboaren "kalejira" Iruñean, eredu energetiko publiko eta soziala aldarrikatzeko.

» LOS MARTES AL SOL KOLEKTIBOA:

"Soluzioa ezin da izan erakunde publikoek beregain hartzea jendearen zorra; energia eskubidea da"

395; Araban, 347). Jaurlaritzak jarritako diru-partidaren %98 erabili dute jadanik, "baina beharrezkoa bada, erakundeak aurreratuko du dirua". Gurutze Gorriak hartzen ditu beregain Iberdrola konpainiarekin egin beharreko tramite guztiak.

Lege bat energia-eskubidea bermatzeko

Pobrezia energetikoari aurre egiteko EAEko eta Nafarroako erakundeek onartutako laguntzez gainera, Espainiako Gobernuak 2009an bono soziala deiturikoa arautu zuen. Era horretan, 3 kW-eko potentzia baino txikiagoa kontratatuta dutenek, 60 urtetik gorako pentsiodunek, familia ugariak edo kide guztiak langabezian dituzten familia-unitateek argindarraren fakturan %25eko beherapena aplikatzeko eskaria egin ahal dute. Baina, hori ere, aldi baterako soluzioa da.

Hori dela eta, lege bat beharko litza-tekeela diote gaia landu duten guztiek, energia-eskubidea bermatuta egon dadin. Rojo legebiltzarkideak bezala, Israel González Los Martes al Sol kolektiboko kideak ere lege baten premia azpimarratu du. Maiatzean lege proposamena aurkeztu zioten Nafarroako Parlamentuari: "Energiara sarbidea izatea eskubidea da eta gaur egun ez dago bermatuta. Ezin dugu ahaztu egungo egoerara energia-zen bitzitu publikoen pribatizazioak ekarri gaituela. Diru asko irabazteko negozio pribatu bihurtu zituzten eta erabat blindatuta dagoen sektorea da".

Izan ere, argi eta gas konpainiek udal eta gobernuekin akordioak sinatu dituzten arren, zorra kitatzen segitzen dute: gobernuek aurreratzen dute diru hori, bai Gurutze Gorriaren laguntzarekin, bai udalen eta bestelako erakundearekin. Nafarroan hitzartutakoari jarraituz, esaterako, energia konpainiak hiru hilabetetan argindarra ez mozteko konpromisoa hartu du eta eskubide sozialen sailak hartu du beregain argindar gastua denbora horretan: 2016an emergentziatzko planetarako 2 milioi euroko aurrekontua onartu zuen Nafarroako Gobernuak; beraz, Gonzálezek azpimarratu bezala, "energia enpresek ez diote dirua irabazteari uzten".

Arartekoak ere pobrezia energetikoari aurre egiteko neurri zehatzak bilduko dituen estrategia osatzeko gomendioa eman zuen urtarrilean. *Euskadiko energia-pobretasunari buruzko gizarte-eztabaidarako oinarriak* dokumentuak, besteak beste, energia-pobretasunaren aurkako euskal estrategia finkatzea, eta Eusko Jaurlaritzari "zaugarritzat eta energia-pobretasuna jasan dezaketen pertsonatzat jotzeko baldintzak betetzen dituzten pertsona edo etxeen definizioa ezartzeko legea" osatzea aholkatu zuen. ■

Jose txo Ezkurra eta Endika Barrenetxea

“ERREMONTETIK EZIN ZAITEZKE BIZI”

Gazteak dira, baina ez berriak. Jose txo Ezkurra (Doneztebe, 1992) eta Endika Barrenetxea (Hernani, 1990) erremontistek urte batzuk daramatzate goi mailan, eta ongi ezagutzen dituzte kirol honek azken urteotan pairatutako gorabeherak, erremontea hiltzorian utzi zuen krisitik hasi eta jokoarekiko maitasunak ekarritako berpizkunderaino. Binakako Txapelketa bete-betean harapatu ditugu, Hernaniko Galarreta frontoian. Ionekin ari da Ezkurra II.a, Seguiolarekin Barrenetxea IV.a.



Jon Ander De la Hoz

@delarregi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Zer moduzko hasiera eman diozue txapelketari?

Ezkurra: Nahiko parekatua dago ligaxka. Lehenetik azkenera lau puntu-ko aldea dago, partida batekoa, alegia. [Ezkurra eta Ionek jada lortu dute semifinalerara pasatzea]

Barrenetxea: Hasiera onena eman diogun bikotea gara, Koteto Ezkurra eta Etxeberria III. arekin batera. Ezin gara kexatu, baina matematikoki ziurtatu nahi dugu finalerdietarako txartela.

30 lagun zabiltzate goi mailan. Osasuntsu al dago erremontea?

Ezkurra: Bi txapelketa nagusienetan jende gehiago animatzen da ikustera, batez ere finalerdi eta finaletan. Ostegunetan jende gehiago gerturatzen da, larunbatetan esku pilota, futbola eta beste kirolek osatutako eskaintza handiagoa dagoelako. Guk ezin dugu kirol horiekin lehiatu.

Barrenetxea: Kirolarioi dagokigunez, jende dezente dago, baina egutegia nola hala betetzera iristen gara, beste urteetan baino partida gehiago jokatzeak erakusten duenez. Hori bai, argi dago jende gehiago egoteak patxada handia-

goa emango ligukeela. Batzuetan gertatu izan zaigu erremontistak aldi berean lesionatuta egotea, eta halakoetan gainontzeko pilotariekin estuan aritzera behartzen ditu.

Erremontea egoera kritikoa bizi izan zuen duela urte gutxi.

Ezkurra: Ni oraindik debutatu gabe nengoen, baina egia da erremontea *im-passe* moduko batean egon zela duela urte gutxi; aurrera jarraitu edo bertan geratu. Oriamendi 2010 enpresak esfortzua egin zuen, proiektu berri bat sortuz, eta ilusioarekin eman zaio buelta. Gainera, Nafarroako Gobernuaren fundazioarekin batera eman da erremontea zabaltzeko zenbait pauso: Zaragozan jokatu dugu duela ez asko. Horrekin pixkanaka jende berria erakarri nahi da.

Barrenetxea: Guk Oriamendi 2010 flotagailu moduan hartu genuen. Ikusi genuen aurreko enpresak itxi zuenean erremontearen itsasontzia hondoratzen ari zela; ura leporaino genuen, eta helduleku gabe geratu ginen. Oriamendi 2010 izan zen une hartan hau biziberbitzeko pausoa eman zuen bakarra. Gero, hilabete amaierara iristeko arazoak zeudela-eta, bide berriak eskaini zizkigun enpresak. Haietatik bat aukeratu genuen; kooperatiba gisa funtzionatzea. Hasieran kostatu da hori barneratzen, lehen hilabetea iritsi eta aurrekoaren

%60 kobratzean jendeak “nik aurrekoan adina lan egin eta gutxiago kobratu dut” esaten duelako. Jende batek ez du jakin bideratzen eta utzi egin du, egoera eramaten asmatu ez duelako. Orain, portzentajeak igotzen ari dira eta datozen hiru urteak hobeagoak izatea aurreikusten dugu.

Zer egin behar da jendea erakartzeko?

Barrenetxea: Lehenengo eta behin, etxekoetatik hasi, lagunak eta beste erakarriz. Ahoz aho, txapelketaren inguruko berriak eman. Horrez gain, sare sozialen, telebistaren eta egunkarien laguntza ezinbestekoa da. Ondo deritzot Zaragozara joatea, baina han ez dugu kirolari asko batuko. Behintzat jakin dezatela hor gaudela.

Komunikabideetako oihartzunean al dago gakoa?

Barrenetxea: Bai, nire ustez hedabideak dira gehien lagundu dezaketenak. Esku pilotarekin konparatzea zaila da, baina hango emankizunekin alderatuta gureak duen kuotari dagokion dirua jasotzea ez legoke gaizki, eta berdin gainontzeko kirolekin ere: zesta punta, aizkora, sega eta beste. Ez dut uste hori betetzen denik, eta laguntza handia litzateke, dela egurrak erosteko edo beste gauzetarako. Baita kirol horien zabal-kunderako ere.



"Harrobia praktikarekin lantzen da" dio Josetxo Ezkurak.

Ba al dago belaunaldien arteko transmisiorik?

Ezkurra: Bai, Nafarroako Gobernuaren Fundazioak jarri ditu zenbait eskola abian. Besteak beste, nire herrian, Donezteben, Atarrabian eta Agoitzen daude. Horrez gain, Galarretako eta Euskaleko eskolek ere ateratzen dute jendea; saiatzen ari dira, jende berria erakarri asmoz. Harrobia praktikarekin lantzen da, eta hori egiteko ordua da.

Barrenetxea: Eman da, bai. Gazte asko dago, eta zaharxeagoak gutxiago daude. Beteranoetan betiko hiru izarrak geratzen dira. Nafarroan lortu da, hamalau gazte berri sartu dira, eta hemen sei gazte ditugu 18-19 urte ingurukoak; horiei gorputza pixka bat gehiago egitea falta zaie. Erremontista gehiago egotea ez da jende faltagatik, ekonomiak ez duelako uzten baizik.

Harrobitik gorako saltoa nolakoa da?

Ezkurra: Orain ez dago duela hamar urteko mailarik. Nire kasuan, sumatu nuen saltoa. 2012an debutatu arren, aurreko urte eta erdian probak egiten ibili nintzen, baina esaten zidaten oraindik itxaron egin behar nuela, indar gutxi neukalako. Azkenean, 19 urterekin egin nuen debuta, baina kostatu zitzaidan. Eta jauzia eman eta gero ere, kostatu zitzaidan estelarretara igarotzea. Pixkaka lortu dut goian finkatzea.

Barrenetxea: Esan bezala, belaunaldi aldaketa eman da. Nik 26 urte ditut, eta duela bizpahiru urte erremontisten erdia ni baino zaharragoa zen, eta orain alderantziz da. Intendentek lan handia egiten ari dira aurten guztia egokitzeko, eta ondo ari direla uste dut.

Nola bizi da goi mailako erremontista bat?

Ezkurra: Duela zortzi bat urte, krisiarekin, diru-laguntzak murriztu egin ziren. Orain dirua irabazten den arren, zaila da hortik bizitzea: batzuk lanean ari dira, besteak ikasten... apur bat kobratzen dugu, baina zaila da hortik bizitzea. Hala ere, sos batzuk kobratzen ditugu gus-tuko dugun kirola egiteagatik eta biak uztartzerik badugu, aurrera.

Ez al da inor erremontetik bizi?

Ezkurra: Urte horiek igaro ziren. Goi-koek irabazten dute dirua, baina ez bizitzeko lain, kasu gehienetan. Gainera, ez dakizu etorkizunak zer ekarriko duen eta prest egotea komeni da beti ere: mina hartzen duzula edo... badaezpada ona da beste zerbaite izatea, eta gehienak horretan gabiltza.



"Koopetatiba gisa funtzionatzea erabaki genuen", kontatu digu Endika Barrenetxeak.

Nola ematen da uztarketa?

Barrenetxea: Bi taldetxo daude, lehen-goak eta oraingoak. Lehendik daudenek 2009ra arte erremontea zuten diru-iturri nagusi. Hori aldatu egin da, eta horrela zebiltzan askok utzi egin dute egoera aldatu denean. Alderantziz gertatu da belaunaldi berriekin; ikasketekin uztartuta hasieran, lanean hasi eta erremontearekin jarraitzeko saltoa naturalki eman dute, zaletasun handia dutenez. Urrizaren kontua bestelakoa da; hark betidanik uztartu izan ditu erremontea eta ingeniari-tza lanak.

Hori bai, egia da ez duzula zertan zortzi ordu sartu, bi nomina dituzulako eta lanaldi erdi batekin lotu dezakezu, baina erremontetik soilik ezin zaitezke bizi. Hemen dabilena zaletasunez ari da, eta txalogarria da, konpromiso maila handia erakusten ari direlako pilotariak. ■

46. BINAKAKO ERREMONTA TXAPELKETA

FINALA

ABENDUAREN 17

2016

Ignacio Escolar kazetaria:

“EZ DITUT ERRESPETATZEN GEZURRETAN ARITZEN DIREN HEDABIDEAK”

Ignacio Escolar (Burgos, Espainia, 1975) oso gazte hasi zen kazetaritzan, hainbat hedabide handitan kolaboratuz. *Público* egunkariaren sortzaileetakoa izan zen, baita lehenbiziko zuzendaria ere, 2007tik 2009ra. *Público*ekin harremana eten eta gero, eldiario.es egunkari digitala sortu zuen 2012an, eta hura zuzentzen du harrezkeroztik. Deustuko Unibertsitateko Donostiako campusean elkartu gara harekin, jendetza baten aurrean kazetaritzaren argi eta ilunez eskainitako hitzaldiaren ostean.



Unai Brea

@unaibrea

ARGAZKIA: DANI BLANCO

“Kazetaritza konprometitua krisi garaietan” izeneko hitzaldia eman berri duzu. Konpromisoa definitu dezagun, lehenik.

Kazetaritza konprometitua esamoldea neurri batean erredundantea dela uste dut, kazetaritzak berez behar duelako konprometitua. Beraz, definitu dezadan kazetaritza: horretarako, bat egingo dut Marty Baron, *Washington Post*-eko zuzendariarekin. Hark esaten du kazetaritza botereari kontuak eskatzea dela, eta nik ere hala pentsatzen dut. Kontra-boterea izatea da kazetaritzaren zeregina, boteredunak kontrolatzea gizar-tearen zerbitzurako, abusurik egin ez dadin lagunduz. Ez dut sinesten kazetari militantean, kausa baten alde ari den kazetarian, kazetari baten konpromiso nagusia ez delako kausa batekin, egia-ekin baizik.

Zure erantzunak beste definizio batzuk eskatzera narama. Lehenbizikoa: boterea.

Botereak bi aurpegi ditu batez ere: politikoa eta ekonomikoa. Erraz aurkitzen da, argi dago non dagoen. Boteredunak

dira legeak aldatzeko gaitasuna dutenak, Justizian eragin dezaketenak, epai-leak eurak...

Hitzaldian esan duzu hedabideak ere boterea direla, eta horregatik eldiario.es-ek beste medioez informatzen duela.

Jakina. Gure irizpideetako bat da ez dugula betetzen lanbide honen arau zahar bat: “txakurrak ez txakurrik jaten”. Kazetaritzaz eta hedabideez informatzen dugu boterea direlako. Eta batez ere, gertatzen diren gauzetako asko ezin direlako ulertu hedabideek nola funtzionatzen duten ulertu gabe. PSOEn oraindik orain izandako krisia ez dago guztiz ulertzerik Rubalcaba *El País*-eko eta Felipe González Prisa taldeko kontseilariak direla jakin ezean.

Egia bilatzea aipatu duzu. Horra hirugarren definizioa, eta zailena: egia. Kazetaritza eta objektibotasunari buruzko eztabaida zaharra dago muinean.

Arazoa da objektibotasunaren aitzakia-ekin abusu handiak ezkututzen direla. Beti erabiltzen dudan adibidea hau da:

manifestazio batera bazoaz eta esaten baduzu “antolatzaileen esanetan 50.000 lagun bildu badira eta poliziaren esanetan 3.000” objektibotasunaren ohiko irizpideen arabera jokatzeko ari zara: ez duzu bakar baten alde egin, iturri guztien bertsioa eman duzu, e.a. Baina badituzu bi begi eta metro-soka bat. Neurketa egin dezakezu, eta metro koadro batean zenbat jende sar daitekeen jakiteko ez da ingeniaria izan behar. Hori zintzo jokatzeko da. Objektibotasuna ez da bi alde bertsioa ematea, egia esatea baizik; batzuetan egia hori ezagutzea ez dago gure esku, baina beste batzuetan bai, beste batzuetan egiaztatu egin daiteke, metodo zientifiko bat erabiliz: kazetaritza. Badago teknika bat horretarako.

Haatik, hedabideetan esaten diren gauza asko ez dira teknikoki egiaztagarriak, eta bai, ordea, aurretiazko posizio baten ondoriozkoak.

Hala da iritziaren kasuan, eta nik gainera uste dut iritzia datuetan oinarritu behar dela. Edozein kasutan, informazioaren kasuan ezin da hala jokatu. In-



formazioari dagokionez, gakoa ez da objektibotasuna, fokua baizik. Horretarako ez dago irizpide teknikorik: zer den garrantzitsua eta zer ez den erabakitzea da kontua. Hori da ildo editoriala: lupa zeri begira jarriko duzun erabakitzea. Gero, gerta daiteke begiratzen ari zaren hori desitxuratu eta zuzenean gezurra esatea. Nik defendatu egiten ditut etxegabetuez baino burtsaz hitz egitea garrantzitsuagoa dela zintzoki erabaki duten hedabideak; irizpide editorial bat da, argia, gardena... Baina ez ditut errespetatzen gezurretan aritzen diren hedabideak, eta batzuek egin egiten dute. Ez beti, ez albiste guztietan, baina bai maiz.

Panorama hori ikusita eldiario.es sortzea ezinbestekoa izan zela esango didazu orain.

Eldiario.es sortu genuen uste genuelako gure lana erabateko independentzia bermearekin egiteko modu bakarra izango zela. Konturatu nintzenean egunkari batean agintzen duena ez dela zuzendaria, ugazaba baizik, eldiario.es sortu behar zela erabaki nuen. Eta erabaki nuen

egunkari berri horren jabeak kazetariak izango ginela. Azken urteetan lortutakoak (irabaziak ditugu, hamabi pertsonako erredakziotik 72kora igaro gara...) frogatzen du asmatu egin genuela.

Hedabide independentea zaretela aldarrikatu duzu. Nola neurtzen da independentzia?

Lau irizpideren arabera: hedabideak dirua irabazten duen ala ez, zorrak dituen ala ez, jabea nor den, eta soldatak ordaintzeko dirua nondik ateratzen duen. Lau parametro horiek aztertuta oharitzen zara Espainian prentsak dituen arazoez. Jabetzari dagokionez, ia hedabide guztiak banketxeen esku daude oraintxe. Zorpetuta daude, eta iragarle handieki-ko eta alderdi politikoek kontrolatzen dituzten erakunde publikoekiko menpekotasun handia dute. Azkenik, ez dute errentagarritasunik, galerak dituzte. Eta egunkari batek galerak baditu, nork ordaintzen du? Irakurleek? Edo irakurleak beste bide batzuetatik gastuak berdintzeko tresna bihurtzen dira? Gu independenteak gara erredakzioaren jabeak

garelako, dirua irabazten dugulako, batez ere irakurleez bizi garelako eta ez dugulako zorrik. Tira, horrek ez digu ziurtatzen independente izatea, hori guztia edukita ere aurreiritzien arabera jokatu eta hanka sar daiteke-eta, baina behintzat erratzeko tartetxo bat badugu.

Aldiro zuen diru-kontuen eta barne-prozesuen, kontratazioen... berri ematea erabaki duzue, neurri batean behintzat. Behin ondo azalduta oso naturala da. "Nolatan ez dute denek egiten?" galdera sortzen da berehala.

Uste dut hedabide askok ez dutela egiten euren kontuak ez direlako erakusteko modukoak. Guk esan dezakegu erredakzioako soldaten erlazioa 1-3koa dela, bekadunei ordaindu egiten diegula eta egun erdiz dihardutela tutore batekin... Irudikatu hori erredakzio askotan; soldata handienaren eta txikienaren arteko erlazioa 1-100ekoa da, jabea ez dakit zein banku da, bekadunen lan baldintzak direnak dira... Hala dabilta Espainiako erredakzio askotan, nola izango dira gardenak? Guk erabaki dugu ira-

kurleek gudan konfiantza izateko modu bakarra nolakoak garen azaltzea dela. Eta hori oso garrantzitsua da. Konfiantzarik ez badute, ezin diezu eskatu berez doakoa den hedabide baten truke ordaintzea, eta horixe da gure kasua.

Etorkizunean paperezko prentsak gaur binilozko diskoek dutenaren antzeko rola jokatu duela esan duzu.

Epe luzean bai. Izan ere, hedabide digital batek papereko egunkari batek egiten duen gauza bera egin dezake, baina hobeto eta merkeago. Gastuak askoz txikiagoak dira, eta informazioa uneoro eguneratu dezakezu, ez egunean behin bakarrik. Telebistak azkenean ez zuen hil irratiko izarra, telebista eta irratia osagarriak baitira, ez bata bestearen ordezkatzailerik. Ezin da telebista ikusi autoa gidatzen den bitartean, edo dutxan. Eta irratian eta telebistan ezin duzu atzera jo albiste jakin bat bilatzeko, egunkarietan bezala. Aldiz, papereko egunkari batekin egin daitekeen guztia digital batekin ere egin daiteke. Paperari geratzen zaion atributu bereizgarri bakarra sentimentala da: papera ukitzea eta tabernan garagardo batekin batera irakurtzea gustuko dugu. Baina ez du ezer berezirik funtzionalitateari dagokionez, horregatik izango da ordezkaturik.

Informazioa etengabe eta uneoro berritzen den honetan, azkartasuna lehen baino are garrantzitsuago bihurtu da. Zehaztasunaren kalterako? Eta bestalde, sakontasuna ere eskatzen zaie hedabideei. Hor izango du azken gotorlekua paperak?

Bai, batzuetan arazo bihurtzen da azkartasuna, baina oro har abantaila dela uste dut. Sakontasunari dagokionez, uste dut azkenean paperezko egunkari asko as-

tekari bihurtuko direla, horrek emango baitu sakontzeko aukera. Izan ere, aste-buruetan saltzen da paperezko medio gehien, eta logikoa da. Aste barruan ordaindu ezin daitekeen bizio garestia da papera. Garestia denboraren ikuspegitik.

“Espainiako prentsan negozio eredua amildu egin da, eta berarekin eraman du independentzia”

“Libre izateko gutxieneko baldintza batzuk bete behar dira, eta hori, lanbide honetan, kazetarien soldatak ordaindu ahal izatea da”

Zuek zentro-ekerrean kokatzen duzue zuen burua. Kazetaritza, lehen definitu duzun bezala, kontra-boterea izan behar bada, posible da eskuineko kazetaritza?

Noski. *El Confidencial*, adibidez, egunkari kontserbadorea da, kazetarien jabetzapekoa, enpresa handiei zartakoak emateko gai dena eta sarri hala egiten duena gainera. Zintzotasunez egiten dute lan, ez dut uste kazetaritza txarra egiten dutenik. Gakoa independentzia ekonomikoa da. Arazoa da nola izan daitekeen independentea dirua galtzen duen egun-

kari bat. Norbaitek ordaindu beharko du, ezta? Hori da gaur egungo espainiar prentsaren bekatua: negozio eredua amildu egin da, eta berarekin eraman du independentzia. Libre izateko gutxieneko baldintza batzuk bete behar dituzu, eta hori, lanbide honetan, kazetarien soldatak ordaindu ahal izatea da. Kazetaritzaren bidez ezin badituzu ordaindu, propagandaren bidez egin beharko duzu.

Orain dela hilabete batzuk “Castellana-ko paperak” argitaratu zenituzten beste hedabide batzuekin batera. Espainiako Estatuko zenbait pertsona aberats eta enpresaren irregulartasun fiskalak agerian geratzen ziren dokumentu horietan. Hitzaldian esan berri duzunez, halako informazioek ez dute izaten Messiren adierazpen batek adinako sona. Atsekabea sortzen dizu horrek?

Pertsonalki bai. Eta atsekabea sortzen du beste medio batzuek informazio hori ez zabaltzeak ere. Baina irakurleek asko eskertzen dute. Hori neurtzeko oso modu erraza daukagu: aurreko egunean zenbat bazkide lortu dugun begiratzea. Eta halako informazio garrantzitsuak argitaratzen ditugun egunetan bazkide asko lortzen dira, jendeak ondo baloratzen du botere handia duen norbaiti buruz era horretako informazioa argitaratzea.

Kazetariok gizartea hobetzeko gaitasuna dugu, horrelako informazioen bidez?


Uste dut baietz. Gu harro egon gaitezke gauza batzuez. Zer eragin izan du Espainian *black* txartelen aferak, esaterako? Bada, guk egin genuen hori. Hainbat iturritatik entzuten ari gara ustelkeria apaldu egin dela salaketari beldur handiagoa dagoelako. Hedabideok eragina dugu, noski. Horretarako gaude. ■



AIREAREN ISLA
Mikel Hernandez Abaitua



BEGOÑAREN ITZALPEAN
Jose Inazio Basterretxea Polo


www.elkarargitaletxea.eus

2017 Ilargiaren Egutegia



JAKOBA
ERREKONDOREN
ESKUTIK
BARATZEA,
FRUITU ARBOLAK,
JARDINA ETA BASOA



PELLO ZABALAK
AUKERATUTAKO
ESAERAK


ALKARTASUNA
Usurbilgo Baseritarren Kooperatiba
www.alkartasuna.eus

**BIZI
BARATZEA**
www.bizibaratzea.eus


ENEK
www.eneek.eus

 **ARGIA**

Aurten ere ILARGIAREN EGUTEGI sonatua argitaratzera doa

**Nekazaritza ekologikoa eta ahalik eta
naturalena sustatzeko tresna paregabea**

Pello Zabalak aukeratutako
esaera bat hilabetero

Jakoba Errekondoren eskutik
hilabeteroko lanak: baratzean, fruitu
arboletan, jardinean eta basoan

Hilabetero ilgora eta ilbehera faseak

Ilargi betea eta berria

Egutegi biodinamikoa,
eguneroko fasea

Nekazaritza ekologikoaren
inguruko osagaiak

Argazki erakargarriak, aurten garai
bateko iragarki xelebreekin osatuta



4 €
+
bidalketa
gastuak

Eskaerak:

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus

Mizpira ezin sudurretik kendu



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Mespilus germanica mizpirari tiraka segitzeko asmotan nauzu. Umetatik nire arreta erakarri izan duen fruitua da mizpira. Txakurraren atzetik eskopeta kanoi paralelo bikoa aurrera luzatuta zeraman aitonaren atzetik ibiltzen nintzanean, jeneralean oilagorretara joanda, erreka zulo sastrakatsu batetik ezin aurrera egin eta aurrerabidea moldatu nahian goraxeagotik abiatu eta koxkaren bizkarrean hara, danba, topo berarekin. Basoaren zilborrean hantxe, mizpirondo ikaragarri bat zabal-zabal hedatua. Ehiztariak beti zorroa aldean, eta ordurako lurrean ziren mizpira gainumotuak bildu egin behar. Haiek zorrora biltzen eta arbolape hartan zegoen usaina eza-guna baina sailkaezina zitzaidan. Ehi-za txakurraren sudur mintzak alferrik izango zuen mizpiraren usain hura, nireak oilagorrena bezalaxe. Halako batean txirikordatu nituen, egoera, fruitua eta arbola eta nire usaimenaren memoriaren altzoan ostatu eman. Orduantxe, umetan, sagardoa zer zen ikasten hasi berria eta hartzitzen ari zen sagar murtio haren usain bertsua mizpirondoaren inguruan. Fruituaren azukrea alkohol bihurtzen ari den hartzidura. Sagarra- ren murtioak irakin egiten du barrikan; mizpiraren mami bigunak alean bertan, bere azalaren mugetan. Mazerazio edo

Mizpira (*Mespilus germanica*).

beratze karbonikoa egiten duten maha- tsen tankeratsu hartzitzen da mizpira, mamia usteldu orde gainumotuz. Umo- tze horren perfumea lurrindu egiten da, azalaz beste. Eta ume mokoaren sudur mintzetan betiko txertatu.

Gaur baino sudur mintz guriagoak eta pituitario zorrotzagoa nuen orduan, bai- na usain hark memoriaren apalategitik ez du alde egiten. Nahita ere berehala- koan galduko ez ditudan oroigarri horie- tako bat dela iruditzen zait. Etxeko atari aurrean ditudan mizpirondoen udazken aldeko usain hau ez daukat saltzeko.

Bateren bati bururatu zitzaion ba, baso gorrian elorri zuri hura (*Cratae- gus spp*) txertatu behar zuela; eta pen- tsatu eta hurrengo txerto sasoian joan eta egin.

Mizpiraren hartzigarri usaintsu ho- riek sagardoari eranstea burutik pasatu ba niri. Eta baita egin ere. Sagardoa- ri eta sagardo ozpinari mizpira ttant- ta. Ummm... Nahi duenak proba dezala edozein konfituratan, konpotatan, ez- ti-uretan... ■

ZURE ETXERA ETA BIZKOR!

denda.karrikiri.eus



13€



34€



16,70€



19€

KARRIKIRI euskal denda. Xabier karrika 4. Iruñea

KARRIKIRI.eus
IRUÑEKO EUSKALDUNON TOPAGUNA



50€-tik gorako
eskaerarekin
opari hau zure
etxean!

IÑAKI "MATTIN" MARTIARENA, ALTZA PORRUZ:

"Txikitatik daukat barrazkiak egiteko ohitura"



Garazi Zabaleta

@tirikitrann

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Barazkiak supermerkatuan erosketak egiten, tabernan urtikalimotxoak edaten, Su Ta Sagar entzuten... Ez al da gehiegizkoa?

Gehiegizkoa guk daramagun bizimodu hau iruditzen zait, halako abiaduran. Itxuraz, komikian barazkiek mundu kaotikoa adierazten dute, baina seguraski guk hautatu dugun bizitza dago hor; gure mundu kaotikoaren isla da.

Baratzearen inguruan bi mundu paralelo marraztu dituzu, elkar eragiten: batetik kanpoko, baratzezainarena, eta bestetik barrukoa, barazkiarena. Nork kontrolatzen du nor?

Hor deskontrol kontrolatu bat dago, edo kontrol deskontrolatu bat, agian. Irakurleak ikusi beharko du hori...

Asko begiratu dituzu barazkiak marrazten hasi aurretik? Haien bizitza hain ongi ezagutzeko...

Ba nik txikitatik daukat barrazkiak egiteko ohitura, marrazkiak baino. Eta beraz, nahiko erraza egin zait *Altza Porru-*

ko lana. Hala ere, egia da buruari buelta batzuk ere eman behar izan dizkiodala istorioa kiribiltzeko eta lotzeko.

Ikasi al duzu zer edo zer berririk baratzearen inguruan *Altza Porru*ekin? Edo lehenagotik gaia kontrolatzen zenuen?

Noski ikasi dudala! Niri lanak epel-epel eta apal-apal egitea gustatzen zait, eta dudarik gabe asko ikasi dut *Altza Porru*ko proiektu honetan. Baratzea eduki izan dut lehenago, bai, eta orain hiri baratzeetako proiektuetan ere banabil. Harreman pixka bat banuen lehenagotik honekin guztiarekin, baina egia da oraindik asko dudala ikasteko. Ikasle hutsa naiz gai honetan.

Titipuliñe da zure komikiko protagonista. Egileen aurkezpenean zu tipula.

Agian Asiskok negarti bezala ikusi nau, eta horregatik marraztu nau tipula aurpegiarekin. Edo, behar bada, denak ere oso yin gabiltzalako da. Tipula oso yin da, eta makrobiotikaren arabera yanginizatzea komeni zaigu denoi ere... ■



Mauleko Mediatekako gelan 40 lagun bildu ziren azaroaren 12an, Altza Porruen aurkezpenean; Jakoba Errekondoren azalpenak ilustratzen aritu ziren Asisko, Ainara Azpiazu "Axi" eta Joseba Larratxe.

EUSKAL HERRI OSOKO AGENDA

Abenduak 8: Gorliz

Nekazaritza eta eskulangintzaz osatutako Eguberrietako azoka.

Abenduak 13: Zumarraga

Santa Luzia azoka. Ganadu erakusketa eta barazki eta fruta azoka. Jakoba Errekondoren kontsultategia ere egongo da.

Abenduak 13: Urretxu

Santa Luzia azoka. Hainbat lehiaketa egingo dira egun honetan: oilaskoen, kapoiaren, fruten, barazkien, Arabako Errioxako ardoen Gipuzkoako eztena.

Abenduak 14: Orio

Altza Porru Komikihitzaldia. Etxeluze gaztetxean, 19:00etan. Jakoba Errekondo eta Antton Olariaga ariko dira.

Abenduak 16: Bilbo

Gabonetako XXXIV. "Gabonart" Azokan, eskulanak ikusteko eta erosteko aukera izango da. Areatzan..

Landareen Euskal Herriko agenda osoa noiznahi ikusteko:
www.bizibaratzea.eus

ZURE HERRIKO AZOKAREN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus ·
www.bizibaratzea.eus webgunean
bertan, oso modu errazean.

GURE GAIK DIRA GURE BALIOAK / PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

LABORANTZAREN GARAPENAREN INGURUKO TXOSTENA

2

Ipar Euskal Herriko Laborantzaren egoera eta garapena ezagutzeko liburua

Ipar Euskal Herriko laborantzak berezko berezitasunak ditu: mendiaren erabilerak duen garrantzia, etxalde aski ttipiak besteeri begira, instalazio dinamika azkarragoa, lekuko eta kalitatezko desmarta kolektibo frango... Ezaugarri hauek zenbakitan zehaztuz, xeheki neurtu daitezkeela? Zein dira Ipar Euskal Herriko eta bere mendian den laborantzaren zenbakiak? Nolakoak dira azken urteetarik gaur arteko bilakaerak? Ipar Euskal Herriko eta batez ere bere mendialdeko laborantza ezagutzeko gisan, lurraldeko laborantza estatistikak ekoizten eta zabaltzen dihardu

Euskal Herriko Laborantza Ganbarak. Zenbakiak, Herri eta kantonamendu mailakoak dira, ezagutza ahal bezain zehatz baten ukaiteko xedearekin. Gaur arte ezezagunak ziren zenbaki hauek, ez baitziren landuak izan Ipar Euskal Herriko lurraldeari begira. Lan honen emaitzak Laborantza errolda orokorrean (Recensements agricoles) eta Laborantza politika bateratuak banatu diru laguntzetan oinarritzen dira gehienbat.

Abenduan zehar argitalpen hauetako bigarren zatia zozketatuko dugu ARGIAko Gunean parte hartzen dutenen artean.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBARA

www.ehlgbai.org
64220 Ainiza-Monjolose (Behe Nafarroa)
Tel: 05 59 37 18 82

#lurraldetasuna
#iraunkortasuna
#elikaduraburujabetza

Hilabeteko honetako sariak

1



Aranzadi Zientzia Elkartearekin bisita gidatua eta bazkaria Iruñeako erakusketan
2 pertsonarentzako

2



Ipar Euskal Herriko Laborantzaren egoera eta garapena
4 liburu

3



Euskaltzaleen aktibazioa XXI. Mendean jardunaldiak
2 sarrera

4



ARGIA 2017 Egutegia
3 egutegi

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



“Trantsizioak” erakusketa izan zen Gasteizen ARGIAk egindako ekimenen ardatza. Tartean, Arabako harpidedunen topaketa.

HARPIDEDUNEN TOPAKETA

ARGIAtik Araba eta Arabatik ARGIA



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean antolatutako ARGIAren “Trantsizioak” erakusketa eta haren inguruan presatutako ekitaldiak oraintxe bukatuta, kontatu didate tarte bat hartu dutela hiriburuko harpidedunekin solasaldi txiki bat izateko. Nola bizi dute Araban ARGIA? Nola ikusten da Araba ARGIA-tik? Komunitate baten parte sentitzen al dira?

Irudikatzen dut talde txiki bat Gasteiz dagoeneko hotzeko kaleetan. Betiko euskaltzaleak. Aspaldi samarreko harpidedunak. Pozez jaso dute ARGIA-tik bidalitako proposamena, eta iritziak partekatze gogoz gerturatu dira zitara. “Mundua euskaratik ezagutzeko tresna” moduan definitu dute ARGIA, eta ARGIA bezala euskarazko prentsa. Eta hari horri tiraka zehazten joan dira komunitate bat. Komunitate horren parte direla sentitzen dute, ulertzen baitute sare horrek mundua euskaratik eta euskaraz ikusten duela, eta zenbait gai ezagutu eta aztertzeke ikuspegi beretik elikatzen dela.

Arabaren potentziala kontutan hartzeko ere eskatu dute. Eta ez da lehen aldia lurraldetasunaren kontuarekin gai hau ateratzen dena. *Gipuzkoarzentristoi* tokea. Ondo egina. Ez dut uste hitz hauekin esango zutenik, baina nik horrelako zerbait imajinatu dut: “gipuzkoarrek beren zilborretik altxa behar dute pixka bat burua, eta ingurura begiratuta jabetuko dira beste lekuetan ere lanean ari garela”. Arrazoi guztia duzue, lagunok, eta eskerrik asko tarteka belarritik tiratzeagatik.

Arabaren komunitatearen kontuarekin izan den lehen harremana da Gasteizkoa, eta aurrera begira lanketa honekin jarraitzea da asmoa. Estreinako saiakera harpidedunekin egin bada ere –eta esan beharra dago gerturatu nahi zuten guztiek ezin izan bazuten ere, zenbait emailer ere bidali dituela bere proposamen eta iritziak–, hemendik aurrera ARGIAzaleekin hitz egingen hastea da intentzioa. Geroz eta sare sendoagoa josi, geroz eta ARGIA indartsuagoa izango baitugu. ■



Sarean #ArgiaJendea harpidetza kanpaina

Lander Arretxea

@larretxea

Ingurua eraldatu nahi duenak, berea ere aldatu behar du. Txalotzekoa @argia-k gaur eman duen pausoa: #ArgiaJendea

Iñigo Roque Eguzkitza

@ldazkola

#ArgiaJendea Mundu arrano hau ulertzen laguntzen digulako. Ahotsik gabekoen ahotsa delako. Gulakoa delako. Gogoa alharazten digulako.

txerren

@txerren

Garaikide. Aurrerakoi. Bidezko. Ireki. @argia is the light.

Txerra Rodriguez

@garaigoikoa

Hurrekoa, horizontala, historikoa, herriarena, harrapazank! #ArgiaJendea eta orain harpidetza berria.

AGENDA

Pirritx eta Porrotxen *Tipi-tapa, korrika!* lan berriaren emanaldia, ARGIAren alde

- ARGIAren Adiskideak Usurbilgo Taldeak, urtero bezala pailazoen emanaldia antolatu du.
- Abenduaren 11n, igandea, 11:30ean Usurbilgo Oiarde Kiroldegian.
- Sarrerak eskuragai: ARGIAra deituta; Usurbilgo Bordatxo eta Marije tabernetan; Lasarteko Artizar tabernan; Hernaniko Leokadisti liburu dendan; Urrietako Ezeiza Etxean; Martuteneko Arantzazuko Ama Ikastolan eta Astigarragako Ikatzeta tabernan.
- Prezioa: Aurretik 7 euro eta egunean bertan 8 euro. 12 hilabete arteko haurrak doan.

MARIE CURIEREN LANBIDEAREN AJEAK




Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Paris, 1898. Uztailean, Marie eta Pierre Curie senar-emazteek artikulu bat argitaratu zuten ordura arte ezezaguna zen elementu baten berri emanez. Polonio izena jarri zioten, Mariaren jaioterria gogoan. Urtea amaitu baino lehen, bikoteak beste elementu kimiko berri bat aurkeztu zuen: radioa.

Mariekin prozesuaren fase bakoitzaren emaitzak jasotzen zituen zehatz-mehatz laborategiko koadernoetan. Etxean ere bazituen koadernoak bertako gorabeherak zehaztasun zientifikoz, modu obsesiboan, biltzeko. Esaterako, Pierren alkandora egiteko erabilitako oihalaren prezioa dakigu koadernoari esker. Irène alaba zen Mariaren etxeko aztergai kutuntakoa. Alabaren buruko diametroa aldiro neurtzen zuen kurrikak erabiliz, eta emaitza txukun idatzi. Polonioa aurkeztu zuten hilabete hartan bertan, Irènek “gogli gogli go” esan zuen eta 1899ko urtarrilean hamabost hortz-hagin zituen.

Sukaldea ere laborategia zen Nobel saridun bikoitzarentzat. 1898an bertan, andere-mahatsen jelea prestatu ondoren, errezeta/esperimentu hau idatzi zuen: “Lau kilo fruta hartu nituen, eta beste lau kilo azukre kristaldu. Dena hamar minutuz irakin ondoren, nahastea galbahe fin batetik pasatu nuen. Kalitate handiko hamalau flasko jele lortu ni-



Marie Curie 1925ean, Parisko Unibertsitateko laborategian lanean, errezeta ez jangarriak prestatzen.

tuen, ez zen gardena geratu eta primeran mamitu zen”.

Marie Curie ez zitzaion bururatu bere aurkikuntzekin errezetak egitea, baina beste batzuei bai. Urtetan, osagai erradioaktiboak erabili zituzten hortzetako pasta edota laxanteak ekoizteko. Hil aurreko urteetan Marie Curiek

haserrea adierazi zuen produktu horiek behar adinako arretaz erabiltzen ez zirelako. Harentzat berandu zen arretaz jokatzeko hasteko. Marie Curieren dokumentu gehienak, errezetak barne, oso erradioaktiboak dira oraindik eta berunez forratutako kaxetan daude gordeta. ■



BIOVEGETALIS

Zer da erregeen hirugarren oparia?

Errege Magoek hiru opari eraman ei zitioten Jesus jaioberriari: urrea, intsentua eta mirra. Garbi dugu lehenengo biak zer diren. Eta bestea? Mirra erretxina lurrintsua da, Afrika ipar-ekialdean, Arabian eta Turkian naturalki hazten den *Commiphora myrrha* zuhaitzaren izerdia. Oso mingotsa du zaporea, baina Antzinaroan gai preziatua zen, lurrinak

eta ukenduak egiteko erabiltzen baitzen. Substantzia horrek propietate sendagarri asko ditu; marrantaren, disenteriarene eta parasitoen aurka erabiltzen zuten. Eta, I. mendean Diskoridesek *De materia medica* lanean jaso zuenez, abortu-eragilea ere bada mirra. Akaso Errege Magoek mezu subliminal bat helarazi nahi zieten guraso berriei? ■

Antza Purr

Eraman etxera **Jakoba Errekondoren** jakintza
puntako **8 marrazkilari** hauek umorez komiki bihurtuta



ANTON OLARIAGA



JOSEBA LARRATXE



ZALDIEROA



UNAI ITURRAGA

BARATZEA MUNDU ASKOTARAKO ATARIA DA:
GURE KULTURAREN OINARRIA DEN LURRA
LANTZEAREKIN BATERA JORRATZEN DITUGU
INGURUMENA, HIZKUNTZA, SEXUA,
ELIKADURA, UMOREA, EKONOMIA...



UNAI GAZTELUMENDI



AINARA AZPIAZU "AKPT"



"MATTIN" MARTIARENA



ASISKO



EROSI 101 ORRIKO
KOMIKI LIBURUA KOLORETAN



19'50€

18€

harpidedunentzat

ANTOLATU KOMIKHITZALDIA ZURE HERRIAN

Landareen inguruko gaiak
azaltzen ditugun bitartean,
komikiak sortuko ditugu,
zuzenean!

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

edukia@bizibaratzea.eus

 **ARGIA**
argia.eus

**BIZI
BARATZEA**
www.bizibaratzea.eus

Elena Urko:

“Orain, emakumeok, transok, bollerok, amaneratuok, elbarriok eta lodiok hartzen ditugu kamerak, eta geure errepresentazioa gobernatzen”

Aktibista transfeminista da Elena Urko, eta Post Op taldeko kidea, Majo Pulidorekin batera. Postpornoaz eta errepresentazioaz hitz egin dugu berarekin.



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIA: ANTONIO ARCARO.

Orain urte batzuk, mugimendu indartsua sortu zen postpornoaren bueltan, batez ere Bartzelona inguruan. Zer da postpornoa?

2003an iritsi nintzen Bartzelonara eta urte horretan bertan sortu zen Post Op. Bartzelonan, garai hartan, topaketa mordo bat ari ziren egiten, hala instituzioetan nola autogestionatuak. Hausnartzen genuen zer arazotsuak diren identitateak, eta hitz egiten genuen politika *queerrei*, maskulinitateei eta beselako pornografia bati buruz.

Testuinguru horretan kokatu behar da postpornoa. Zenbait feminismok eta pertsonak begi kritikoz erreparatzen genion porno *mainstream*-ari, izan ere, sexuari, generoari eta gorputz normaltasunari buruzko hamaika estereotipo betikotzen baititu, eta, gainera, sexuari buruzko egia bakar bat saltzen, askotariko identitate eta praktikak kanpoan utzita. Desira eraikia bada, bada, orduan, garrantzitsua da bestelako desirak eta iruditeriak sortzea, bestelako praktikak eta identitateak txertatzea, gizarte heteropatriarkal, *kapazitista* eta kapitalista ez indartzeko.

Orain, emakumeok, transok, bollerok, amaneratuak, elbarriek eta lodiek har-

tzen ditugu kamerak, eta geure errepresentazio propioa gobernatzen.

Nabarmen aldatu da hiria. Zertan igartzten da?

Gutako askorentzat hainbat gauzaren ikur zen Bartzelona: askatasuna, arte adierazpen ugariak, underground kultura, raveak eta politika; hara iristean, ordea, amets horren azken arnasestuak baino ez genituen aditu. Urte gutxiren buruan, izugarri murriztu zituzten geure askatasunak, espazio autogestionatuak itxi zituzten pixkana, eta espazio instituzionalizatu eta kontrolpekoetatik at egiten zen kultur ekintza orori jazarri zitzaizkion. Turistentzako jolas parke handi bat bihurtu zen hiria, kreditu-txartela astinduz baino eskuratu ezin zen kultura sustatu zen, baita ordenantza zibiko berri bat onartu ere, zeinaren bidez, espazio publikoa erabiltzea galarrazi baitziguten. Orain aldaketa prozesu batean gaude berriro, Ada Colau alkate dugula, eta espero dut Bartzelona bizitzeko moduko hiri bat bihurtuko dela berri.

Postpornora itzulita, Artelekun ere izan zen tailer bat, benetan garrantzitsua.

Bai, 2008an, *Feminismo Porno Punk* jardunaldiak egin ziren Artelekun. Hantxe egin genuen gure estreinako tailer post-

pornoa eta hantxe ezagutu genituen gaur egun geure aliatu politikoak diren hainbat, eta haiekin batera sare sako-nak ehundu. Garrantzitsua iruditzen zaigu gorputzaren bidez sortzea alian-tzak, jarioen bidez, eta politika egiteko sexualitea esperimentatzea eta gorputzek elkarrekitea. Tailerrek aldaketa eraginkorrak sortzen dituzte: hainbat lagunek beren taldeak antolatzen dituzte gero, eta urteak pasatuta, askok esan digute tailer horiek mugarri izan zirela sexualitateari buruz zeukaten ikuspegian. Politikak gorputza zeharkatzen duenean, esperientziaren bidez, orduantxe egiten dizu buruak klik, eta ez dago atzera egiterik.

Zergatik dira sexualitatea eta pornoa borroka-zelai funtsezko?

Bada, gure ikuspegitik, pornoa ideologia bat delako. Pornoak gorputz eta praktika jakin batzuk zilegitzen ditu, eta beste batzuk, ordea, doilortzat jotzen eta ikusezin egiten. Gaur egun, gero eta gazteago iristen da jendea pornografiara interneten bitartez, eta kezkarria iruditzen zait sexu-hezkuntza pornografia nagusiaren esku uztea. Beharrezkoa da bestelako sexualitate eta gorputzak agertzen dituen porno bat sortzea; gorputz guztia sexualtzat jotzen duen porno bat, zentzumen oro kontuan hartzen



*U.K.I. Performance Nazioarteko Cuir ekitaldian.
Reina Sofia Arte Zentroan, 2011n.*

duena eta ez soilik genitalak, eta askotariko praktikak erakusten dituen.

Nola, noiz eta zertarako sortu zen Post Op?

2003an sortu zen, Maratón Postpornoaren osteko orgia baten ondoren. Hasieran, gure helburua zen espazio publiko-ramatea hausnarketa haiek guztiak, identitateei, sexualitateari eta erre-presentazio pornografikoari buruzkoak, izan ere, sarritan, ez baitziren ateratzen espazio instituzionaletik, zentro sozialetik edo festa-girotik. Geure egin genituen pornografia nagusiaren tresnak: hala, tresnok irauli eta ikus-entzulea harritzen genuen. Sexuaren eta generoaren dikotomiak hautsi nahi genituen, eta, horretarako, performanceak egiten genituen, eta izaki nahasgarri eta mutanteak sartzen espazio publikoan.

Zuen lanean, besteak beste, espazio publikoa bersexualizatzen duzue.

Egunero bonbardatzen gaituzte ikus-entzunezkoek gorputzaren, binarismoaren eta sexualitatearen inguruan, eta ezinbestekoa iruditzen zaigu hori guztia xalo-xalo ez irenstea; horregatik, bestelako ikuspegiak sortu behar dira diskurtso normatiboaren aurrean. Adibidez, ecosex/urbansex tailerretan, gure helburua da ordenantza zibiko berrien

» “Egunero bonbardatzen gaituzte ikus-entzunezkoek gorputzaren, binarismoaren eta sexualitatearen inguruan, eta ezinbestekoa iruditzen zaigu hori guztia xalo-xalo ez irenstea”

bidez ia-ia erabiltezin bihurtu diren lorategi eta plazak sexualizatzea. Zertarako nahi dugu parke bat, ezin badugu belarra zapaldu? Praktika postporno askok badute abantaila bat: kanpotik, ez dira sexu-praktikatzat jotzen, izan ere, sarritan, begirada oso murriztua da eta genitalekin lotutako hori baizik ez da jotzen sexualtzat; orduan, hala ez denean, zerbaitek nahasten eta artegatzten ditu ikusle-entzuleak, baina tartetxo bat behar dute ikusten duten hori ulertzeko eta ondoren erabakitzeke ea salatzeke modukoa ote den.

Urteak pasa ahala, nola aldatu dira zuen ekimenak?

Hasieran, performanceak egiten genituen, baina adierazpide horren bidez ezin ginen toki askotara iritsi, urrun zeudelako edo aurrekonturik ez genuelako. Gainera, konturatu ginen batzuetan ikus-entzuleak kanpo geratzen zirela: performanceak ikusgarriak ziren, baina ez genekien ikus-entzuleek benetan ulertzen ote zuten zertaz ari ginen.

Orduan, bideo postpornoak egiten hasi ginen, eta jaialdi eta topaldietara bidaltzen, bai eta gure lehen gorputz tailerrak egiten. Horien bidez gonbita luzatzen genien parte-hartzaileei, beren sexualitatea esperimenta zezaten, jolas moduan.

Tailer batzuetan, iruditegi pornografiko berriak sortzen ditugu; beste batzuetan, berriz, esperientzia dugu oinarrian, eta helburua da geure gorputzak ahalduntzea eta beste gorputz batzuekin elkarrekitea, ez soilik ikusmenaren bidez, baizik eta beste zentzumenak ere baliatuz. Jostailuak, protesiak eta gorputz-atal ahaztuak erabiltzen ditugu, eta saiatzen gara arauz kanpokotzat jotzen diren gorputzekin aliantzak sortzen: pertsona lodiak, transak, aniztasun funtzionalekoak, ebakuntza edo gaitzen baten ondorioz gorputza aldatu zaienak...

Azken urteotan, aniztasun funtzionaleko kolektiboarekin jardun duzue asko.

Funtsezko aliantza bat izan da. Aspalditik ari ginen gorputz normaltasunaren parametroekin bat ez datozen gorputzei buruz hizketan, hala ere, generoarekin eta sexuarekin lotutako zapalkuntza-ardatzaz ari ginen batez ere, eta ez genituen aintzat hartzen beste zapalkuntza-ardatz batzuk, hala nola gaitasunarena.

Uste genuen jende guztiari irekitako tailerrak egiten genituela, eta, batzuetan, ez genuen eskaintzen espazio irisgarririk ez ariketa egokiturik. Jakina, hori aldatu dugu, eta orain ezinbesteko baldintza da gure espazioetan eta dinamikan.

Tailer postporno bat egiteko eskaini ziguten *Yes we fuck* dokumentalerako eta mugarrria izan zen hori. Sekulako bizipena izan zen, tailer horretan konturatu ginen ez zegoela jostailu barne-hartzailearik eta halaxe sortu zen Pornortopedia proiektua: hain zuzen ere, sexu-jostailuak diseinatzen ditugu, bestelako interesak, sentitzeko eta mugitzeko moduak aintzat hartuz.

» “Gure ikuspegitik, pornoa ideologia da. Pornoak gorputz eta praktika jakin batzuk zilegitzen ditu, eta beste batzuk, ordea, doilortzat jotzen eta ikusezin egiten”

» “Praktika postporno askok badute abantaila bat: kanpotik, ez dira sexu-praktikatzat jotzen, izan ere, sarritan, begirada oso murriztua da eta genitalekin lotutako hori baizik ez da jotzen sexualtzat”

Urte horretan bertan, Muestra Marrana jaialdian atal bat eskaini genion postporno elbarriari eta hortxe konturatu ginen hutsunea zegoela, ez zegoela porno askorik, aniztasun funtzionaleko jendeak egina, ahalduzko ikuspegi batetik. Halaxe sortu zen Nexos: bideo bat da, gorputzaren inguruan lan egin nahi zuten cripple eta queer aktibistek elkarlanean sortua.

Zertan ari zarete orain?

Pornortopediarekin jarraitzen dugu buru-belarri. Majo Pulido A Coruñan dago, topagune batean, eta prototipo berri bat sortzen dabil: mugikortasun gutxi daukaten pertsonentzako jostailu bat da, alua ikusi ahal izateko eta klitoria kitzikatu ahal izateko; horretarako, bibragailuak eta presio-sentsore batzuk ipintzen dira gehien kontrolatzen duzun gorputz-atalean. Neu, berriz, dibulgazioan eta hezkuntzan nabil. Esate baterako, Topatu Pototak jardunaldietan izan naiz orain gutxi Tolosan, neska gazteekin. Hitzaldi bat eskaini nuen postpornoaz eta porno etiko, feminista eta iraultzaileaz. Lanean jarraitzeko gogoz gabiltza, noski. ■



Kalean da abenduko

aizu!

- Otxandiotik Iruñera, nola?
- Aralarren, pistak polemikarako bide
- Imanol Ituiño, arin-arin
- Durangoko Azokara bisitan
- Euskara elkarteak etorkizunari begira

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**
aizu.eus



ELENA AITZKOA



Xabier Gantzarain
www.argia.eus/artea

USO PUZTUA. 2015

Teknika mistoa. 10x18x13 cm.

Gaztea izanagatik jada Gure Artea saria jaso duten artistetarik da Elena Aitzkoa Reinoso (Apodaka, 1984ko urtarriaren 17a). Epaimahaiak saritzeko modukoa ikusi zuen “artearen gainean duen ikuskera bitalista, bulkada poetiko erradikala eta koherentea, zeinaren bidez bere unibertso propioa sortzen baitu, egunerokoa aparteko bihurtuz”. Jolaserako joera du izenburuetan ere. Ez alferrik, idatzi egiten du, argitaratua du poema libururik, bloga du. Idazketa, performancea, marrazkia, pintura, unean-uneko beharraren arabera hautatzen du adieraz moldea, nahiz eta es-

kultura izan gehiena landu duena orain arte.

Gauza arruntekin eraiki ohi ditu bere eskulturak, eta lanaren egitura erakustea lortzen du, baita materialen izaera bera indartzea ere. Bere definizioa hobea da, hala ere: “Oihalekin lan egiten dut, aiztoa eskuan eta bertso bat ahoan. Inguruko objektuak jausi egiten dira. Eskulturak lurretik jaiotzen dira, eta denetarik dute. Puskak dira, opariak, zuloak, gordelekuak, kaikuak, lorategia eta paisaia”. Ez du ordea oihalekin bakarrik lan egiten, bidean aurkitzen duen oro balia dezake lanerako: harriak, hariak, adarrak, pa-

per zatiak, liburuak, matxardak, gomak, zernahi, eta bere eskulturetan txeratzten ditu, igeltsutan ezkutatu, buztinetan sartu, oihaletan bildu. Anabasa dentsuak dira lan batzuk, beste batzuk, argazkiko hau kasu, soilak, sotilak eta dotoreak.

Ez da geldik egotekoa. 2007an, Miguel A. Garciarekin batera, Le Larraskito kluba sortu zuen, soinu-esperimentazioan eta ohiz kanpoko musiketara interesatuta, eta Zarata Fest antolatzen ere ibili da orduduan. Urte berean egin zuen bere lehen erakusketa, egin ditu batzuk harrezkero. Carreras Mugica galerian erakutsi du aurren bertan. ■

KULTURKRITIKA


» LIBURUA

Frogatu baino frogatuago



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga



Eldarnioak

KARLOS LINAZASORO

Erein, 1991

Hogeita bost urte bete ditu Karlos Linazasorok. Ez biologikoak, bistan da, nahiz ederki asko kontserbatzen den: gutxi batzuk gehiago dituela dio, espainiarra dela esateaz gainera, bere nortasun agiriak. Ez du ematen, bete-betea baitago gizona: 2016 honetan bakarrik atera ditu *Trilogia hiperlaburra* eta *Zerua beti beherago dago*. Luze gabe, iazkoan kaleratu zuen *Literatura hiztegi tekniko laburra*, liburu kritikari auskalo ausartegi bati “Linazasororen obra gorena izan daitekeena” atera ziona.

Hogeita bost urte literario bete ditu, beraz, Karlos Linazasorok. 1991n argitaratu baitzi-tuen estreinako, ez bat, bi liburuak. 1991ko urrian *Udazkeneko karabana erratua*, eta aurretik, ekainean, *Eldarnioak*. Hasieretatik erakutsi zuen, hartara, bere ibilbidea markatu duen ezaugarrietako bat: superproduktzioa. Orain hamar urte, hamabost zeramatzanean, zenbatu bagenizkion hogeitaz liburutik gora, orain hogeita bost daramatzala gaintzen ditu erraz berrogeiak. Matematiketan trakets dabilenarentzat: asko-asko argitaratu duela.

Baina beti ez omen zen izan horrela. Hona ekartzeko aukeratu diogun *Eldarnioak* narrazio liburuan, zera irakur daiteke azal hegalean: “Barruan zeraman literaturzaletasun lo zorro xamartua, erabat esnatuko zen Tolosako Udal Liburutegiko ardura hartzearekin batera” –bide batez, bibliotekari hiltzaile ez bereziki abila bat du protagonista *Dowstowngo kronika* ipuinak-. Hori bai, hasi bazen, ez gelditzeko egin zuen. Eta hasi zen gerora bere ibilbidea markatu duten elementuak erakusten: ahots askotarikoak, kezka konstanteak, umore korrosiboak.

Joxemari Iturralde herrikideak idatzi zuen, estreinakoaren atzeko azalean: “Liburu honek maila berezi bat, goi-maila bat lortzen du, narrazio ezberdinak irakurtzen joan ahala, gero eta gorago ezarriz doana”. Denboraren perspektibarekin erraza da, baina, liburuko ipuinak gero eta aurrerago maila igotzen doazen arren, ados, esango nuke Iturraldek aipatzen duen maila berezi hori, goi-maila hori aurrerago lortzen duela Linazasorok, beste liburu borobilago batzuekin, aspaldi handian ez abandonatzeko gainera.

Eta zentzu horretan adosago nago Felipe Juaristi kritikagileak adierazi zuenarekin: “Lehen ipuin bilduma izanik, liburuak ematen duenaz gain, bertan agertutakoen arabera espero izatekoak direnak ere kontutan hartu beharrekoak dira. Testu, gozagarri ugari damaizkigu, baina hau inportantea eta euskal literaturan ez-ohizkoa izanik ere, ez da garrantzi gutxiagokoa erakusten duen potentzialidadea”. Denborarekin, eta bibliografia ezin interesgarriago batekin, frogatu baino frogatuagoa geratu den *potentzialidadea*. ■



Karlos Linazasoro Izagirre (Tolosa, 1962) idazle emankorra.

» TELEGRAMA

Juaristi, Makuso, Otxoteko & Gorrotxategi idazle laukoteak *Muga* liburuaren aurkezpena eta errezitaldia egingen dute Iruñeko **Katakrak kulturenean**, abenduaren 15ean, ostegunez, 19:00etan **STOP Pier Paul Berzaitz & Baiona-Kostaldeko Orkestrak** emanaldi berezia eskainiko dute Lapurdiko Bokaleko **Paul Vaillant-Couturier** kultura-gunean, abenduaren 17an, larunbatez, 20:30etan **STOP Gasteizko Udal Antzoki Sarearen Eguberrietako** programazioak hamasei ikuskizun eskainiko ditu abenduaren 1etik urtarilaren 4ra arte. **Principal antzokian** besteak beste, **La Oreja de Van Gogh, Faemino y Cansado, Fermin Muguruza** eta **Albert Pla** izango dira **STOP**

» DISKOA

Doinu indartsua, salaketa eta aldarria



Joxi Ubeda

**Boomerang****FRENETIK**

Autoekoizpena, 2016

Frenetik taldea jendaurreko emanaldi batean.

PATRY GONZALEZ



Aguraingo taldeak aurrerapausoa egin du bere bigarren disko honekin. Taldea egonkortu egin du, eta *Boomerang* lanarekin taldeak bere esentzia aurkitu duela esan daiteke, bere mamian sakondu duela.

Taldeak punk-rock eta rock doinuen bidez kritika eta salaketa egiten jarraitzen du, ustelkeriaren, bidegabekeriaren eta faltsukeriaren inguruan, ahoan bilorik izan gabe, zuzen edo ironiarekin. Baina bere doinua findu egin du, melodiak gehiago landu ditu, eta zer egin nahi duen eta nola egin nahi duen argi daukala nabarmena da.

Doinua indartsua da, erritmoak biziak dira, eta kantuek energia handia, inkonformismoa eta haserrea transmititzen

dute. Borroka egiteko beharra, askatasuna eta nor den bezalakoa izatea ere aldarrikatzen dute: "Izan zure bizitzaren jabe beldurrik eduki gabe, sentitu eta bizi aske". "Aldaketa ez digute oparitu, herria eraiki dezagun, zurekin aldatu nahi dut, kantu berri bat egin nahi dut eta bide berri bat sortu, ez beldurtu dena baitago gure esku".

Unai Olalde (gitarra eta ahotsa), Fonta (ahotsa), Xabi Seko (baxua eta ahotsa) eta Eneko Larrañaga (bateria) dira Frenetik taldeko kideak, eta grabazioa Altsasuko Itxura estudioan egin dute, Fontaren beraren eta Fran Perezen gidaritzapean. Masterizazioa Jonan Ordorikak egin du Mamia estudioan, eta diseinu lanaz Iker Baxerri arduratu da.

Kantuak janzterakoan hainbat musikariren laguntza izan dute. Pello Reparaz (Vendetta), Olatz Salvador (Skakeitan), eta Pablo Martinez (Desakato) aritu baitira Frenetik taldekoekin grabazio saioetan. Halaber, Iker Pastorren laguntza ere izan dute hitzak idazteko garaian.

Eratu, Kaotiko, Kaos Etiliko, Hesian, Txapelpunk eta No-relax taldeetan aritutakoak dira taldekideak, eta Frenetik taldearekin denbora gutxian, bi urtean, jendaurreko emanaldi ugari egin dituzte eta bi disko plazaratu dituzte: *Guillotina* 2015eko otsailean eta *Boomerang* aurtengo azaroan. Hemendik aurrera jendaurreko emanaldiak egiten hasiko dira disko berriko kantuekin. ■

Bizitzak ez du ezer balio

LADYDI GARCIA

Azaroaren 4an, Elorrioko Arriola Antzokian eskainitako emanaldia.

Aktoreak:

Dorleta Urretabizkaia, Klara Badiola, Aitziber Garmendia, Amaia Irazabal eta Iñake Irastorza.

Ekoizpena:

Ados Teatroa.

Players for the stolen nobelaren egokitzapena da.

Gidoia eta zuzendaritza: Garbi Losada.



TESTUA ETA ARGAZKIA:
Ale Goikoetxea

Gizonik gabeko lurralde batean bizitzea, ametsik gabeko gau batean lo egitea modukoa dela dio Ladydi Garcia Martinezek bere kontakizunean. Bizitzak ez omen du ezer balio, ez behintzat Ladydi eta bere ama bizi diren Mexikoko Guerrero estatuko herrixka honetan. Beldurrez, narroek herriko neska politenak noiz bahitu eta eramango dituen, bizi da neskato mexikarra, 10 urte bete ostean eskolara mutilez jantzita joan behar duen umeak.

Aktoreak taularatu orduko, emakume ahots baten melodia gozoak Mexikora gerturatzen du ikuslea. Iluna da taula gaineko dekoratua, Aitziber Garmendia aktoreak antzeztutako Ladydi 12 urteko neskatoaren bizimoduaren parekoa. Hasierako iluntasuna burdin hotsak hautsi du Elorrioko Arriola Antzokian.

Istorio indartsua eta gordina, hasieratik bukaerara sorpresaz betetakoa.



Iñake Irastortzak antzeztutako ama kementsua, eta protagonistaren hauspo izango diren kide zoro, desesperatu, samindu, gogor eta alaiak bukaerarako ikuslearen begirunea eta miresmena lapurtuko dituzte. Ederra da gutako askorentzat entzuna den “heriotzaren trena” edota “*la bestia*” izena duen trenaren bizipenak Amaia Irazabalek antzeztutako Lunaren ahotik entzutea. Baita berarekin batera, miseria eta gosea atzean laga, eta AEBetara iristean zoriontasuna lortzearekin amestea ere. Gogorra aldiz, amets horrekin batera norberaren zati bat ere bidean geratzen dela ikustea.

Gizonezkoen ausentzia nabarmena da antzeztokian, Garciatarren etxean eta Guerreroko herrixkan legez. Istorioan gertatzen den moduan taula gainetik ere gizonezkoek mugaz beste aldera ihes egin dutela dirudi, bizitza hobe baten

bila, narkotrafikotik eta bizitza galtzeko arriskutik urrun. Ausentzia horrek indarra ematen dio Jennifer Clementen *Prayers for stolen* nobelan oinarrituta eraikitako ikuskizunari, emakumeen bizipenak gertuago bizi baititu modu horretan ikusleak.

Antzezlanak bukatu eta antzokian bildutako txalo zaparradaren ostean, hausnarketarako abagunea zabalduta. Euskara hutseko antzerki honek ikusleak AEBetako mugara eramaten du, mexikar doinuko erreferentzia bakarekin eta lekuan kokatzeko beste faktore guztiak egoki erabiliz. Fikziotik eta errealtatetik zenbat daukan ez jakin arren, narkotrafikoa, emakumeen arteko elkartasuna, haur lapurtuen afera, mugaraino eramandako txirotasuna... gertutik ezagutzeko aukera ederra eskaintzen dio ikusleari. ■

Egilea: Ana Zambrano

Bertso-zopa

Osa ezazu Maialen Lujanbiok 2015ean Donostian botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Gure aurreko guraso zaharrak*. Gaia: *Jolastu liteke? Ez!*

Ikastolako jolastokiak
behar gintun _____
baina askotan justizitik ta
_____ horrek eskas du.
Baldin bazera neskato edo
_____ dohai fisiko eskastu
_____ bazabiltz edo ez bazera
lider txikiekin _____
baloi jabeak maite ez duna
ezin _____ jolastu.

Beraz jabea bakarra da ta
berak _____ duen bezela
antolatzen da jolastokia
ta antolatzen da _____
Besteak dira bere meneko
ta bera da _____
Gizarte hontan gertatzen zaigu
jolastokian bezela:
zeinek _____ zun umek helduak
imitatzen _____?

Espazioa eta _____
nahi degu geureganatu
ta beste gisaz eta justiziz
gure _____ banatu.
Baloi jabe den agintariak
ez gaitzala gu _____
baloia ostu beharko zaio
eta besteontzat _____
edo bestela baloirik gabe
beste _____ bat asmatu.



UKberri-CC By

L	H	I	U	A	U	T	S	A	R	E	B	A	B	P
P	I	D	H	K	I	P	H	D	R	I	R	V	A	I
H	U	T	N	A	O	V	N	R	P	N	B	A	L	O
N	N	L	E	G	N	J	E	O	P	H	B	G	R	F
E	S	S	E	K	J	G	M	B	E	U	D	Z	L	A
Z	A	T	F	G	E	Z	J	L	O	A	F	G	B	E
Z	H	C	G	L	E	R	C	J	P	H	B	T	E	M
N	F	P	A	U	E	T	P	H	S	C	A	I	G	V
R	H	L	U	G	G	C	I	N	T	T	L	T	N	J
I	A	O	K	O	J	A	R	K	G	N	E	J	U	U
N	E	A	F	C	N	P	F	B	S	V	T	C	N	D
L	G	L	M	A	N	A	T	U	H	D	Z	U	I	A
E	H	E	R	R	E	N	Z	H	D	B	U	T	A	P
S	U	C	L	E	L	H	M	B	D	H	T	R	C	D
A	U	T	S	A	H	A	N	E	H	R	I	A	N	L
N	P	O	J	R	T	A	I	M	G	A	D	H	P	B

Sudoku

Erraza

					6			
6	2		5	7	1	9		3
9	1	5		4			8	
2	3				5	8	7	9
	5		3		2		6	
4	8	6	7				3	2
	9			2		4	1	8
1		4	9	5	8		2	7
			1					

Zaila

	2		7				6	8
3				5	8		4	
		9			6			
	9	5				2		
		6				7	8	
			8			1		
	3		2	1				9
6	4				5		2	

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									

Ezker-eskuin:

1. Zati txiki edo baztergarri. 2002 erromatar erara. 2. Sugai. 3. Egunaren zati ilun. Artzeko auzoa, Nafarroa. 4. Zerbait egiteko abagunea. Erbioaren sinboloa. 5. Talioaren ikurra. **Argazkian.** 6. Gaztigu. Musu. 7. Itogina. 8. Kinina ateratzen den zuhaitza. Gariaren hauts.



Igartza

Goitik behera:

1. Sukaldaritzan oso preziatuak diren itsas arrainak. 2. Azpikoz gora jarri. 3. Truke. Ginebra. 4. Selenioaren ikurra. Edo-ren indargarria. 5. Gero, geroago. 6. Indar edo sendotasun urriko. Hamaika erromatar zenbakiz. 7. Erromatar zenbakiz, 1002. Pixka, pitin. 8. Zeu, zuhaur. 9. Ikaraz, ikaran.

Ebazpenak

Ikastolako jolastokiak | behar gintun **aberastu** | baina askotan justizitik ta | **legetik** horrek eskas du. | Baldin bazera neskato edo dohai fisiko eskastu | **herren** bazabiltz edo ez bazera | **lider** txikiekin **nahastu** | baloi jabeak maite ez duna ezin **lirike** jolastu. | Beraz jabea bakarra da ta | berak **nahi** duen bezela | antolatzen da jolastokia | ta antolatzen da **gela**. | Besteak dira bere meneko | ta bera da **erregela**. | Gizarte hontan gertatzen zaigu | jolastokian bezela: | zeinek **esan** zun umek helduak | imitatzen **dituzela**? | Espazioa eta **jokoa** | nahi degu geureganatu | ta beste gisaz eta justiziz | gure **erara** banatu. | Baloi jabe den agintariak | ez gaitzala **gu manatu** | baloia ostu beharko zaio | eta besteontzat **hartu** | edo bestela baloirik gabe | beste **joku** bat asmatu.

P	O	L	I	T	A	I	M	G	A	D	H	P	B	
G	H	E	R	R	E	N	Z	H	D	B	U	T	A	P
S	U	C	L	E	L	H	M	B	D	H	T	R	C	D
A	U	T	S	A	H	A	N	E	H	R	I	A	N	L
N	P	O	J	R	T	A	I	M	G	A	D	H	P	B

6	4	1	9	7	5	8	2	3
7	3	8	2	1	4	6	5	9
9	5	2	8	6	3	1	7	4
4	1	6	3	6	2	7	8	5
2	7	3	5	8	1	4	9	6
8	5	6	4	7	2	3	1	9
3	1	7	6	9	8	5	4	2
5	3	6	7	1	5	8	9	4
1	2	4	7	3	9	5	6	8

8	7	2	1	3	4	6	9	5
1	6	4	9	5	8	3	2	7
5	9	3	6	2	7	4	1	8
4	8	6	7	1	9	5	3	2
2	5	9	3	8	2	1	6	4
7	3	1	4	6	5	8	7	9
9	1	5	2	4	3	7	8	6
6	2	8	5	7	1	9	4	3
3	4	7	8	9	6	2	5	1

Erraza
9. Ikarazan.
7. Cili, Apur 8. Zerori.
Edota 5. Geroa. 6. Makai, XI.
2. Iraili. 3. Truke. 4. Se.
Goitik behera: 1. Legatza.
8. Kin, Irin.
6. Zigor, Pot 7. Ikarura.
4. Aukera, Er 5. TI, Dolare.
2. Erragal 3. Gau, Etxa.
Ezker-eskuin: 1. Lits, MCII.

Paula Ezkerra. Prostituta politizatua



Politikara jauzia egin duen lehen sexu langilea da Paula Ezkerra (Buenos Aires, 1971). Feminismoaren eta okupa mugimenduaren indarrak ekarri zuen Kataluniara duela hamasei urte eta, orduz geroztik, prostituten estigmen aurkako borrokaren ikurra izan da, Prostitutas Indignadas (Sumindutako Prostitutak) elkartearen bitartez besteak beste.

“Puta izatea askatasun sinonimoa da niretzat”



Saioa Baleztena

@SaioB

ARGAZKIAK: JORDI BORRÁS

Estigmatetik at!

“Buenos Aires hiriko klase ertaineko familia batean hazi eta hezi nintzen, Belgrano auzoan. Feminista eta prostituta naiz eta sexu langileen bazterketaren kontrako borrokan murgilduta nago oroimena dudaketik. Txikitatik argi izan nuen ez nuela izan nahi nire ama bezalako emakume otzana: ez nuen nahi gizon batek ni mantentzea. Horregatik borrokatu nuen Argentinako Maiatza Plazako manifestazioetan, zoragarria izan zen. Anarkista samarra izan naiz. Tira, gaur egun ez hainbeste. Gaztetatik izan naiz puta, berezkoa dudalako sentsualitatea. Horrekin jokatzan dut eta nire lanak ere garatu nau zentzu horretan”.

Duela hamabost urte iritsi zinen Argentinatik Kataluniara. Zerk ekarri zintuen?

Mito guztiek diotenaren aurka, ni bikain bizi nintzen Buenos Airesen. 2000. urteko krisi ekonomikoaren aurretik etorri nintzen Bartzelonara, 1999an, eta beraz, ekonomikoki ere ez nuen arazorik han: gaztea nintzen eta diru asko irabazten nuen. Betidanik egon izan naiz mugimendu feministan murgilduta, eta Argentinan nuen lagun katalan baten eraginez, egarria nuen Bartzelonan indar berezia zuen mugimendu okupa ezagutzeko. Hark gomendatuta iritsi nintzen hona.

Garai hartan feminismoak indar nahikorik zuen Argentinan?

Tira, ez. Handituz zihoan orduan. Izan ere, han badira hainbat mobilizazio klase arazoei lotuta daudenak gehienbat, baina ez dago feminismoaren inguruko gogoeta sustatzen duen kontzientzia indartsurik.

Sexu langileen diskriminazioaren aurka borrokatzen duen mugimenduaren ikurra zara. “Puta” hitzak ez al du berezkoa gutxiespen zentzua?

Inolaz ere ez! Puta izatea niretzat askatasunaren sinonimoa da. Nik ere borrokatu nuen estigmen aurka hasieran. Alegia, errudun sentitzen nintzen prostituta izateagatik, aurreiritziek jaten ninduten. Klean nenbilen eta iruditzen zitzaidan begirada guztiak nigana zetoze. Urte asko behar izan nituen nire ogibidea askatasunez bizitzeko.

Prostituzioak badu alde ilun bat: mafiak. Non dago muga?

Prostituten errealitatearen argazkia aztertzen badugu denetik dago eta, zalan-tzarik gabe, emakumeak sexu langilea izatea ez erabakitzea da muga. Esklabotza delitua da ogibide guztietan eta XXI. mendean oraindik egotea onartezina da. Hala ere, gizarteak uste badu esklabotza prostituzioan baizik ez dagoela, horrek esan nahi du emakumearen gorputza eta bagina santutzen duen moralak nagusi dela gurean.

Feminismoaren adar abolizionistarentzat kontraesana da prostituta eta feminista izatea, “gizonezkoei zuen gorputza sal-tzeagatik”.

Errespetu osoz onartzen ditut baieztapen



horiek. Are gehiago, nik ere izan nuen ikusmolde abolizionista. Argi nuen nire gorputzak ez zuela gizonezkoentzat izan behar, eta prozesu gogorra izan zen. Horregatik sentitzen nintzen errudun. Azken finean, emakumezkoak gutxiesten dituen gizartean bizi gara. Hala ere, urte askoren ondotik konturatu naiz ikusmolde horrek ere prostitutak zigortzen dituela. Ez da erraza izan, presioa iraunkorra baita; ikusmolde abolizionistak elikatzen du guk deuseztatu nahi dugun estigma.

Uste duzu ezjakintasun handiegia dagoe-la gai honen inguruan?

Zalantzarik gabe. Ni harro nago nire ogibideaz, eta emakume askok ezagutu ez duten askatasunaz egiten dut lan. Idatzi gabeko hitzarmen bat dut nire bezeroekin: ezagutzen ditut, nire arauak argitu eta ondoren dator gainontzeko guztia. Emakumeok ez dugu gure gorputza saltzen, beharra dutenak gizonezkoak dira eta botere osoa, beraz, guk dugu. Beti pentsatu izan dut munduak berdintasuna ezagutzen duen egunean desagertuko dela prostituzioaren inguruko eztabaida. Prozesu hori ulertzeak lagundu dit ikuspuntu abolizionistaz urruntzen.

“Zalantzarik gabe ezjakintasun handia dago prostituzioaren inguruan. Ni harro nago nire ogibideaz, eta emakume askok ezagutu ez duten askatasunaz egiten dut lan”.

Inoiz izan duzu indarkeria arazorik?

Orokorrean gizonezkoekin ez dut arazorik izan. Baina bai, zoritxarrez izan dut. Eta harrituko zaitu baina poliziekin izan da! Herrialde askotan lan egin dut, Argentinan, Brasilen, Italian eta Alemanian, besteak beste, eta indarkeria egotretan murgilduta egon naizen gutxietan poliziak izan dira tartean.

Bartzelonako Udalak martxan jarri ditu hainbat neurri, zuen aldarrikapenei erantzuteko. Adibidez, gutxieneko baldintzak dituzten espazioak dituzue eskura orain.

Guretzat aurrerapauso itzela da. Erakundeek oinarritzko eskubideak asetzeko aukera ematen digutenean urrutiago gelditzen dira isilpean jardun beharra eta mafiak. Horregatik aldarrikatzen dugu araudia, mafiek indarra hartzen dutelako erakundeek gure eskubideen alde borrokatzen ez dutenean.

Kaleko borroka gain, erakundeetan ere parte hartu duzu, CUPeko zinegotzia izan zaren heinean. Noiz erabaki zenuen politikan sartzea?

Betidanik sinetsi dut erakunde politikan, sistemaren barrutik gauzak aldatu daitezkeela uste dut eta. Argentinan, adibidez, gaztetxo nintzela parte hartu nuen aktibista gisa bertako diktadura militarra salatzeke hainbat ekimene-tan. CUPen proiektu politikoarekin bat egiten dudanez, onartu egin nuen. Emakumeon etorkizunaren alde asko dago egiteko eta etorkizunaren parte izan nahi dut.

Zinegotzi kargua utzi zenuen baina oraindik ere elkarlana duzu Bartzelonako Udalarekin. Zertan ari zara?

Putas y alianzas elkartean Bartzelonako Udaleko feminismo sailerako txosten bat prestatzen ari gara. Horretaz aparte CUPeko oraingo zinegotziarekin kontaktua dut, eta nire alorreko aholkulari lanetan ari naiz. Kontua da zinegotzi ardura niretzat gehiegizkoa zela, erosoago sentitzen naiz egitura honetan lan egiten. Hala ere, beti egongo naiz aukera berrietarako prest. ■

‘Euskararen oilobustia’ aurkeztu du Jaurlaritzak, bi arraultzekin



Katxi Pastarrika GPSko sailburuordea, besapean MokoPabo oiloa duela (ez da muntaia).

Txantxangurroaren kanpainak izan duen arrakastak hauspotuta, euskaraz hasi eta bigarren esaldirako gaztelaniara pasatzen den espezie inbaditzaileari zuzendutako ekimena abiatu du Jaurlatxirlak: “Euskararen oilobustia”. Euskaraz luze solasteko gai ez diren ugaztunek paparrean eraman ahal izan-

go dute “MokoPabo” izeneko oiloaren txapa. Berdin merkatari, funtzionario edota politikariek, argi uzteko alperrik hasiko garela haiekin euskaraz, konturatzeko Anasagastiren hizkuntzari helduko dietelako. Herritarrek animatu aldera, Urrezko Arraultza Saria emango du Jaurlaritzak E -de español- Egunean.

DURANGOKO AZOKA: ALBIRISTE PREXKUAK

Balentria ikaragarria! Emakume batek sei ordu pasa ditu Azokan eta ez du “aspaldiko!” behin ere esan

“Iaz handiagoa egin nuen ba: Elkarren saltoki bat bera ere ikusi gabe bueltatu nintzen etxera”, adierazi du.

Eusko Jaurlaritzaren saltokian liburu bat erosteko zorian izan da gizon bat
“Beste stand batekin nahastu nintzen”, azaldu du gizajoak erdi totelka.

Toti Martinez de Lezeak liburuak sinatzeko erabiltzen dituen boligrafoek greba mugagabea hasi dute

“Patronalak lan karga jasanezin hau murriztu arte tinko eutsiko diogu borrokari”, aldarrikatu du ELA-Idaztortzeko kide batek, aurpegia kaputxaz estalita.

Donostiar batek Berangon pasa du larunbat goiza, azokaren guneaz galdezka
“Banengoen ba errazegi aparkatu dudala”, esan du okerraz ohartutakoan, handik bost ordura.

ARGIaren kontrako 23 kexa jaso dira gatzozpindu gabeko letxugak banatzeagatik
“Bejondeiela”, erantzun du Jakoba Errekondok.

SAREAN ARRANTZATUA

Daltonikoek ere ikurriña maite dute



Euskotrenko displaya da guaya





1925-1936

MODERNITATE BAKAN BAT

"ARTE BERRIA",
DONOSTIAREN INGURUAN

2016ko AZAROAREN 5ETIK
2017ko OTSAILAREN 5ERA

STM

San Telmo Museoa



donostiakultura.com



ELKARRIZKETAK
CONVERSACIONES
DSS2016.EU

#STMmodernitatea

San Telmo Museoa. Zuloaga Plaza, 1.
20003 Donostia | T. 943 481 580
www.santelmomuseoa.eus

Erakunde babesleak

Patrono pribatuak

Enpresa ongileak

Enpresa laguntzaileak



EL DIARIO VASCO

berria




GARA

naiz:

jargia





Lan
berriaren
aurkezpen
emanaldia

OIARDO KIROLDEGIA (USURBIL) ABENDUAK 11, IGANDEA

saio bakarra: 11:30ean

Sarrerak: aurretik 7 euro, egun berean 8 euro (12 hilabete arteko haurrak doan)

Eskuratu zure sarrera:

☎ 943 37 15 45
sustapena@argia.eus

Antolatzailea

ARGIAren Adiskideak
Usurbilgo Taldea

 **ARGIA**